


txinpart⁵⁶

www.hurtzarroikastola.net

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2013ko
EKAINA





txinpart⁵⁶

www.hurtzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hurtzaro informatzen	3
Euskararen txokoa	15
Hatzak bete lan.....	18
Ikastolaren eguna	21
Gu ere kazetari	35

ARGITARATZAILEA

Hurtzaro ikastola
Elorondo, z/g
20159 Oiartzun
© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Kaixo, irakurlea:

Iritsi zaigu ikasturte honetako azken txinparta esku artean izateko momentua; ofizialki, bukatu dugu 2012-13 ikasturtea. Ofizialki esango dugu, uda partean ere oraindik baditugulako hainbat egitasmo egitekoak: Enjoy English egitasmoa, xanistebanetako txozna... eta nola ez, ikastolaren aurpegia, anfiteatroa, berritzeko lanak.

Buru-belarri aritu gara ikasturte honetan, jarritako helburuak lortzeko lanean. Ikasleak, nor bere eguneroko lanean murgilduta, zintzo aritu dira, eta baita irakasleak eta gurasoak ere, haiek lanean gidatzen eta laguntzen.

Bestalde, ikastola proiektuan ere aurrera egin dugu: EKI DBHrako proiektu pedagogiko berria irailetik aurrera martxan jarriko dugu, bazkideak lanak sendotu ditugu, datorren ikasturteetarako estrategia plana definitu dugu, eta hori guztia KEI kalitate egitasmoaren bitartez kudeatuz.

Dudarik gabe, esan dezakegu gure ikastolaren hezkuntza eredua indartsu dagoela, eta hori beharrezkoa izango dugu onartu berria den WERT legeari aurre egiteko.

Pasa den maiatzean bete dira hogei urte beste lege batek ikastolon mugimendua astindu zuenetik. Momentu zaila eta gogorra izan zen 1993ko maiatza hura ikastolentzat. Hala ere, garai hartako ikastolako partaideek hartutako erabakiari esker, lana eta borroka eginez, ikastolen eredia eta izaera mantentzea lortu dugu, eta kalitatezko hezkuntza euskaldunaren proiektu sendoa dugu Oiartzunen ere. Konfiantza osoa dugu aurrera egiteko eta legeak ekarriko dituen buruhausteak gainditzeko, EKI proiektuaren izenak jasotzen duen moduan, euskalduntasun energia izango baitugu horretan gidari. Baina hori 2013-14 ikasturtean izango da.

Hitzaurre hau bukatu aurretik, aurtengo DBH4a bukatu duzuen ikasle guztiok agurtu nahi zaituztegu eta aurrerantzean zortetik handiena opa dizuegu; haiekin batera ikastolako guraso ibilbidea bukatuko duzuen guraso guztiei ere gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, eta bazkide ez aktibo izanez ikastolan jarraituko duzuela espero dugu. Bide batez, ongietorria ere eman nahi dizuegu irailean ikastolako familia berriak izango zaretenoi.

Eta besterik ez. Ikasle, guraso, langile eta gainerakook merezitako atsedena hartu, oporrak ongi pasatu eta disfrutatu!!



Ibilaldiak eta ekintzak

Haur Hezkuntza 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
HH1	APIRILAK 24	GARAÑO BASERRIA	BASERRIKO ANIMALIAK IKUSI
HH1	MAITZAK 1	MENDIBILGO TXARA	LOREAK BILDU
HH1	EKAINA	LISTORRETA	ELKARREKIN ONGI PASATU
HH2	MAIATZA	HERRIAN ZEHAR	DENDAK IKUSI
HH2	MAIATZA	ALCANPO	HIPERMERKATUA IKUSI
HH2	MAIATZAK 23	IKASTOLA	IPUIN KONTAKETAZ GOZATU
HH2	EKAINAK 7	ITURRIOTZ	BASERRIA IKUSI
HH3	APIRILAK 11	PAGOETAITURRAN BASERRIA	ERLEEN BIZITZA EZAGUTU
HH3	MAIATZAK 10	LARREMOTX BASERRIA	ARTZAINAREN BIZITZA EZAGUTU
HH3	MAIATZAK 31	KURTSAL - DONOSTIA	ERAIKUNTZAK IKUSI
HH3	EKAINAK 6,7	ARRITXULO	LAGUNEKIN LEHENENGO GAUA PASATU
HH1, HH2, HH3	MAIATZA	IGERILEKUA	LAGUNEKIN GOZATU

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH1	Apirilak 18	Oiasso museoa (Irun)	Erromatarren gaian sakondu
LH1	Maiatzak 24	Kristina-enea (Donostia)	Naturaren gaian sakondu

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH2	Maiatzak 9	Oiartzungo inguruan	Gure ingurunea ezagutu
LH2	Ekainak 4-5	Astiz	Ikasturteari bukaera eman eta elkarren arteko harremanak sendotu

Lehen Hezkuntza 2. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH3	Apirilak 11	Donostia	Haizearen gaia: Oteiza eta Txillidaren lanak behatu
LH3	Apirilak 16	Ikastola	Aitor Arana idazlea elkarrizketatu
LH3	Apirilak 18	Ikastola	Juul bozketan parte hartu
LH3	Apirilak 15etik 26ra	Ikastola	Liburuen erakusketaz gozatu
LH3	Apirilak 24	San Marko menda	Gure ohiturekin jarraitu
LH3	Maiatzaren 2. astean	Mendibilgo txara	Ekosistema aztertu
LH3	Ekainak 3/4	Uitzi	Ikasturte bukaeraz gozatu

Lehen Hezkuntza 2. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH4	Apirilak 8	Donostiako zientzi museoa	Uraren ezaugarriak ikasi
LH4	Apirilak 17	Penadegiko zentrala	Oiartzungo uraren kudeaketa
LH4	Apirilak 24	San marko mendiko txangoa	Eskualdeko ohiturak ezagutu

Lehen Hezkuntza 3. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH5	Apirilak 18	Juul bozketak ikastolako jantokia	Irakurzaletasuna bultzatu
LH5	Apirilak 25	Lexoti bertso jaialdia	Bertso-zaletasuna bultzatu
LH5	Maiatzak 23	Madalensoro	Bertsolaritza sustatu
LH5	Maiatzak 3	Pagoetako parke naturala	Ekosistema desberdinak ezagutu
LH5	Maiatzak 5	Niessen lantegia	Ingurugiro eguna ospatu
LH5	Ekainak 10,11 eta 12	Zuhatza (Araba)	Gure arteko harremanak sendotu



Lehen Hezkuntza 3. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH6	Apirilak 15	J.M. Iturralde idazlearekin elkarrizketa	Irakurzaletasuna bultzatu
LH6	Apirilak 18	Juul bozketa Ikastolako jantokia	Irakurzaletasuna bultzatu
LH6	Apirilak 25	Lexoti bertso jaialdia	Bertso-zaletasuna bultzatu
LH6	Apirila - maiatza	Sexu Heziketa tailerra	Gure sexualitateari buruz hausnartu, mintzatu, ikasi
LH6	Maiatzak 3	Hernani	Eskolarteko Bertsolari gaztetxo lehiaketan parte hartu
LH6	Maiatzak 23	Madalensoroko bertso festa	Bertsolaritza sustatu
LH6	Ekainak 5, 6 eta 7	Arotz-enea (Etxarri Larraun)	Gure arteko harremanak sendotu

Bigarren Hezkuntza DBH 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
DBH1-2	Apirila 9-10	Ikastola	Osasun heziketa eta droga menpekotasunaren prebentzioa Droga menpekotasun prebentzioa
DBH1-2-3-4	Apirila	Ikastola	Juul kanpaina Irakurzaletasuna sustatu
DBH1-2-3-4	Apirilak 22	Oiartzun	Nafarroako konkista: Beloaga Euskal Herriko eta Oiartzungo historia ezagutu
DBH1	Apirilak 25	Ikastola	XXXI. Lexoti Txapelketa Euskal kultura ezagutu eta bertsolaritza sustatu
DBH1-2	Maiatzak 3	Hernani	Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketa Euskal kultura ezagutu eta bertsolaritza sustatu
DBH1-2-3-4	Maiatzak 22	Ikastola	Herri kirol topaketak Euskal kulturaren inguruko kirolak ezagutu
DBH1-2-3-4	Maiatzak 31	Oiartzun	Eskola Agenda 21: herri batzarra Ingurumen heziketa
DBH1	Ekainak 12-13-14	Espejo	Ikasturte amaierako ibilaldia Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatu
DBH2	Apirilak 18	Erreterria- Oiartzun	Oiartzun ibaiaren azterketa (Zientzia t.) Oiartzun ibaiaren azterketa
DBH2	Ekainak 5	Ernio	Espeleologia: lurpeko kirolak ezagutu
DBH2	Ekainak 12-13-14	Acedo	Ikasturte amaierako ibilaldia Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatu
DBH2	Ekainak 18	Donostia	Suhiltzaileak (Zientzia T.) Suhiltzaileen lana ezagutu
DBH3	Apirilak 9	Ikastola	Aesleme. Istripuen prebentzioa
DBH3	Maiatzak 6-7-9	Erreterria	Arraunketa Hibaikarekin. Arrauna kirolaren ezagutu
DBH3-4	Maiatzak 7	Ikastola	Mikel Odriozola atletaren bisita. Martxa atletikoaren ezagutu
DBH3	Ekainak 12-13-14	Gorliz	Ikasturte amaierako ibilaldia Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatu
DBH4	Martxoak 4	Ikastola	Oiartzoko orientatzaileen bisita. Ikasleen orientazioa
DBH4	Martxoak 6	Ikastola	Idazleen bisita: Jon Arretxe Ikasleak euskal literaturara hurbildu
DBH4	Martxoak 19-21	Ikastola	Osasun heziketa eta droga menpekotasunaren prebentzioa Droga menpekotasun prebentzioa
DBH4	Martxoak 20	Erreterria	Oiartzora bisita. Ikasleen orientazioa: batxilergoaren ezagutu
DBH4	Apirilak 9/ Maiatzak 15	Sara / Donibane Lohitzune	Eurohiria trukea (Biologia-Geologiako ikasleak) Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleekin trukea eta Euro-hiria eremua ezagutu
DBH4	Ekainak 10-11-12-13-14	Katalunia	Ikasturte amaierako ibilaldia Ikastolako ibilbideari amaiera eman

Urteko sarituak

ARGAZKILARITZA

- **Garazi Oiarbide eta Udane Alberdi:**
Haurtzaroko V. lehiaketan 1. saria
- **Peru Ruiz de Azua:**
Haurtzaroko V. lehiaketan aipamena
- **Larraitx Etxebeste:**
Haurtzaroko V. lehiaketan 1. saria
- **Nagore Iza eta Izar Gaztelumendi:**
Haurtzaroko V. lehiaketan aipamena
- **Irati Elizasu:**
Haurtzaroko V. lehiaketan aipamena

ARRAUNA

- **Aitor Torres:**
Euskadiko txapelketan 2. saria

ARRAUN OLINPIKOA

- **Mikel Etxebeste:**
Euskadiko distantzia luzeko txapelketan 3. saria 3+ modalitatean
- **Oihan Manzidor:**
Euskadiko distantzia luzeko txapelketan 2. saria 4X modalitatean, Gipuzkoako distantzia luzeko txapelketan 1. saria 8+ modalitatean eta Midi Pyrénées txapelketan 1. saria 8+ modalitatean.

ATLETISMOA

- **Amairu Errazkin:**
Erreterriako San Silbestre lasterketa
- **Ibai Lecertua:**
Cellar-eko San Silvestrean 2.a,
Fanderiako lasterketan 2.a
- **Ekain Jimenez:**
Gipuzkoako txapelketan 60 m hesidun,
2. postua
- **Ekhiñe Rivas:**
Ugaldetxoko duathloian 1. neska eta
Fanderiako Errege krossean 1. neska
- **Araitx Sagarna:**
Ugaldetxoko duathloian 2. neska
- **Nerea Oiarzabal:**
Gipuzkoako txapelketan altura jauzian 3. saria

BERTSOLARITZA

- **Olatz Irazoki:**
Lexoti bertso-paper lehiaketan txapelduna
- **Iraitx Mateo:**
Ibon Zabala bertso-paper lehiaketan 2. saria
- **Aiora Mancheño:**
Lexoti bertso-paper lehiaketan 1. saria
- **Jokin Irastorza:**
Gipuzkoako bertso-paper lehiaketan aipamena

ESKUBALOIA

- **Aitor Estefano:**
Hondarrbiko Selekzioen arteko txapelketan Gipuzkoarekin txapeldun
- **Eider Tomé:**
Urnietako eskubaloitomeoan,
Ereintza taldearekin 1. saria

FUTBITOA

- **Xabier Eizmendi, Nikolax Kazabon, Xabier Oiarbide eta Ekhi Aristizabal:**
Xanistebanetako futbito txapelketan 1. saria

FUTBOLA

- **Anje Delgado:**
Nojako urteroko txapelketan txapeldun

HIPIKA

- **Narrea Prieto:**
Gipuzkoako doma klasikoko txapelketan 1. saria eta doma klasiko sozilean 3. saria

IGERIKETA

- **Aitor Sagastuy:**
Euskadiko txapelketan 1. saria

JAZZ DANTZA

- **Beatriz Alvarado:**
Haroko (Errioxa) 1. saria eta Mungiako D'Zanp txapelketako 3. saria

JUDO

- **June Gorostidi:**
Durangoko txapelketan nesken arteko 3. saria
- **Iker Iglesias:**
Durangoko txapelketan mutilen arteko 3. saria
- **Izaro Idarreta:**
Gipuzkoako txapelketan 1. saria
- **Gorka Aduriz:**
Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan 1. saria
- **Mikel Iparragirre:**
Durangoko txapelketan 3. saria
- **Uxue Oiarbide:**
Gipuzkoako txapelketan 3. saria
- **Peru Ruiz de Azua:**
Gipuzkoako txapelketan 3. saria
- **Jon Asensio:**
Gipuzkoako txapelketan 2. saria

KENPO KAI

- **Julen Lasarte:**
Euskadiko txapelduna
- **Unax Arriaran:**
Gipuzkoako txapeldun ordea
- **Aitzol Alberdi:**
Euskadiko txapelduna eta
Gipuzkoako txapeldun ordea

KONPARSA

- **Yvonne Retegi:**
5 urtez bertan egoteagatik sari berezia

KRONO ESKALADA

- **Ekain Elizasu:**
Iturriotzeko krono-eskaladan 1. saria
- **Ane Etxebeste:**
Iturriotzeko krono-eskaladan 1. saria

LITERATURA

- **Ekain Sein:**
Oiarzungo Prosa eta Poesia lehiaketa
- **Irati Barron:**
Oiarzungo Prosa eta Poesia lehiaketa
- **Iker Irigoien:**
Oiarzungo Prosa eta Poesia lehiaketa
- **June San Sebastian:**
Oiarzungo Prosa eta Poesia (poesia)
- **Beñat Landa:**
Oiarzungo Prosa eta Poesia lehiaketan (prosa)
- **Katerin Artola:**
Oiarzungo Prosa eta Poesia lehiaketan (poesia)
- **Maialen Elorza:**
Euskaltzaindiak antolatutako Azkue sarian 2. saria poesian
- **Imanol Ugalde, Naroa del Rio, Maddi Puy, Amaia Cortes, Maialen Elorza, Karen Muñoz, Maider Olaizola, Jon Otegi, Izaro Idarreta:**
Oiarzungo 2012 Prosa eta Poesia lehiaketan saridunak

LOGOA

- **Oihan Astigarraga:**
Agenda 21eko logo lehiaketan 1. saria

MARRAZKETA

- **Aitor Larraya:**
Oiarzungo txapelketako 1. saria



PIANO

- **Lidia Zaldua:**
pianoa
- **Uxue Escribano:**
Zilarra, Andoingo jaialdian (lau eskutara)
- **Izaro Idarreta:**
Andoingo piano jaialdian (lau eskutara)
ohorezko aipamena
- **Ane Cruz:**
Andoingo piano jaialdian (lau eskutara)
ohorezko aipamena
- **Mattin Apaolaza:**
Andoingo piano jaialdian urrezko domina
- **Irati Zabala:**
Andoingo piano jaialdian ohorezko aipamena
- **Amaia Cortes:**
Andoingo piano lehiaketan urrezko domina
- **Olatz Iragorri:**
Andoingo piano lehiaketan urrezko domina

PILOTA

- **Aitor Larraya:**
Xanistebanetako txapelketan txapeldun-ordea
- **Maddi Mugika:**
Xanistebanetako txapelketan txapelduna (pala)
eta Gipuzkoako txapelketan 2. saria (pala)
- **Asier Alkorta:**
Gipuzkoako txapelketan 2. saria (pala)
- **Mikel Aranburu:**
Xanistebanetako txapelketan txapeldun-ordea
- **Ibon Tome:**
Xanistebanetako txapelketan txapeldun-ordea (pala)
- **Malen Elizasu:**
Xanistebanetako txapelketan txapelduna (pala)
- **Ekhiñe Soroa:**
Gipuzkoako azpi-txapelduna (palan, binaka)
- **Beñat Leonet:**
Gipuzkoako pilota txapelduna (binakakoan)
- **Ekaitz Salaberria:**
Eskualdeko binakako txapelduna
- **Aritz Leonet:**
Gipuzkoako trinkete txapelketan eta Oarsoaldeko pilota txapelketan 2. saria
- **Zigor Salaberria:**
Gipuzkoako trinkete txapelketan 2. saria
- **Oroitz Sein:**
Xanistebanetako pilota txapelketan banaka
1. saria eta binaka 2. saria.
- **Oihan Lopez:**
Elizondoko txapelketan 1. saria
- **Aitor Leonet:**
Karrikako jaietan, banaka eta binaka 1. saria
- **Imanol Ugalde:**
Bortzirietako txapelketan 1. saria

PALA

- **Endika Rodriguez:**
Xanistebanetako pala txapelketan 2. saria
- **Leire Galdos:**
Gurutzeko nesken pala txapelketan binaka
2. saria
- **Maddi Soroa:**
Xanistebanetako pala txapelketan 1. saria

SASKIBALOIA

- **Aitor Alberdi:**
Euskal Herriko selekzioarekin Espainiako txapelketan 4. saria eta Gipuzkoako txapelketan Asatuak klubarekin 1. saria

SMS LEHIAKETA

- **Ekaitz Benitez:**
Motxian eby lehiaketako Oarsoaldeko irabazlea
- **Lur Gaztelumendi:**
Motxian eby lehiaketako finalista
- **Oier Mugarza:**
Motxian eby lehiaketako finalista

SOINU ZAHARRA

- **Katerin Artola:**
Oiertzungo txapelketako 1.a,
Euskadiko txapelketako 4.a
- **Naroa del Rio:**
Elgoibar eta Beasaingo Soinu zahar txapelketan
B sailean 1. saria, Billabonan 3. saria,
ligan 1. saria eta Euskadiko neskatxena
txapelketan jantzi politenaren saria

TXIRRINDULARITZA

- **Ibai Lecertua:**
Oiertzungo BTT txapelketan 2.a
- **Malen Elizasu:**
Iturriotzko jaietan 1.a
- **Gexan Albisu:**
Aiako Harria BTT maratoian 3.a
- **Ekhiñe Rivas:**
Oiertzungo BTT maratoian 1. neska
- **Araitx Sagarna:**
Oiertzungo BTT maratoian 2. neska

EKAITZ BENITEZ,

motxian eby mezu lehiaketako irabazle

Oiertzualdeko Euskara Batzordeak eta Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuek elkarlanean antolatutako mezu lehiaketa izan da Motxianebey. 12-16 urte bitarteko gazteek hartu dute parte. 140 karaktere inguruko mezu bat bidali behar izan dute ondorengo galderari erantzunez: "zmz atzokoa?"

Gure eskualdeko, Oiertzualdeko, irabazlea ikastolako Ekaitz Benitez ikaslea suertatu da ondorengo mezuarekin: "Atzoko euna oso normala izan zn: gosaldtu, sofán etzan, bazklidu, sofán etzan, mriendatu, sofán etzan, afaldtu ta ... FSTAAA!". 200 euroko erosketa txartela jaso zuen maiatzaren 2an egin zen sari banaketan, eskualdeko dendetan gastatzeko. Honez gain, finalisten artean Oier Mugarza eta Lur Gaztelumendi ere izan dira. Hauek berriz, 60 euroko erosketa txartela irabazi zuten.

Zorionak hiruroi eta jarraitu euskaraz mezuak bidaltzen!



Haurtzaroko

Bertso-hotsak

31. Lexoti saria

Orain dela 30 urte, **Lexoti** bertsolariaren izenarekin, martxan jarritako bertso saioak aurtur ere izan du jarraipena. **Apirilaren 25ean** ospatu zen ikastolako areto nagusian. Bertan, Haurtzaroko Bertso Eskolako ikasle-irakasleak izan ziren protagonista nagusi. Karmele Mitxelena irakaslea izan zen saioaren gidari eta gai jartzaile. Izaro Toledoren ikasleek eman zioten hasiera eta amaiera saioari, beren agurrekin. 6.mailako honako ikasle hauek aritu ziren lanean: Unax, Ander, Ange, Beñat, Ekaitz, Kimetz, Katerin eta Araitz.

Bat-bateko saioan Karmeleren ikasleek kantatu zuten, DBHkoak. Xuban Martiarena, Josu Iburguren, Aiora Mantxeno, Leire Galdos, Jokin Irastorza, Jon Otegi, eta Iraitz Mateo. Karmelek era guztietako lanetan jarri zituen bertsolariak: lau oinak emanda, bukaera emanda, gaia jarrita...

Bigarren zatian, bertsopaperak kantatu zituzten irabazleek. 6.mailako txapelduna Olatz Irazoki izan zen. Gaia: "Momentu horretan asko sufritu nuen". Honatx bertsoetako bat: *Zergatik joan zara ta utzi gaituzu?/ pena izugarria banatu diguzu/ nire laguntasuna behintzat badaukazu/ nire bihotzan zati handi bat zara zu.*

DBH 1eko irabazlea, Aiora Mancheño izan genuen. Gaia: "Handitzean zer izango naizen galdetu didate". Hona ondoren bertsoetako bat: *Printzesa, eskale edo gudako gerlari/ ateak irekiaz letren munduari/ utzi hegan egiten irudimenari/ handitan izan nahi dut ipuin kontalari.* Maila honetan, Intza Mitxelenak eta Josu Iburgurenek ere jaso zuten finalisten saria.





33. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa

Haurtzaro bertso eskolako bertsolariak Tolosako FINAL HANDIAN

Maiatzaren 3an Hernaniko Viteri kultur etxean izan ziren gure bertsolari gazteak. Bertsopa-peretan 26 ikasle izan ziren 6. mailatik finale-rako sailkatu zirenak, eta 24 DBH1etik idaztera joan-dakoak. 50 ikasle guztira, ordubetea bi bertso borobiltzeko ahaleginetan.

Bat-bateko saioan, Karmele Mitxelenak prestatutako sei bertsolari aritu ziren kantari. Ttikien mailan, talde bat: Aiora Mancheño, Josu Ibarguren, Xuban Martiarena eta Jokin Irastorza. Lan bikaina egin zuten. Handien mailan, berriz, Iraitz Mateo eta Jon Otegi. Orain, beste kanporaketen zain egon beharko, gure bertsolarien emaitzak jakiteko.

“Haurtzaroko taldeko kideak Hernanin ere aritu ziren”.



Madalensoron bertsoan

Lehen hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek Madalensoron bertso saioa eskaini zuten maiatzaren 23an. Herri mailan egin zen, eta Oiartzungo bi ikastetxeetako ikasleek parte hartu zuten.


Ikasturtean zehar bertsolaritzako saioetan landu eta ikasitakoa jendaurrean azaltzeko aukera izan zuten neska-mutilek. Ikastalde bakoitzak gelan prestatutako ekoizpena aurkezten du topaketa honetan.

Saioa bertso-festa izan zen, bertsoarekin disfrutatzeko tarte polita. Gai askoren inguruan, umorea eta alaitasuna bertsoarekin oso lotuta daudela azaldu zuten. Horregatik, mozerroek eta antzerkiak garrantzi handia izan zuten. Gainera, hasierako lotsak gaingintzeko modu aproposa ere bada hori.

Saioaren hasiera eta bukaera bertso eskoletako ikasleek egin zituzten.

Han izandakoek, parte-hartzaileek eta gonbidatuek ongi pasa zuten, eta gaztetxoentzat bertsolaritzaren arrastorik aurrera egiteko parada oso baliagarria izan zen.

Bertsolaritzaren transmisioaren sokak ez du etenik!





Aurtengo Kilometroen antolakuntzan ikasleei arreta berezia eskaintzeko asmoa dute. Gaztetxoek ere Tolosako KMK13ko parte aktiboa izan daitezen, ikasleen batzordea osatu dute.

Gaia: AHORA!. Leloaren inguruan neska-mut-
len irudimenari ateak ireki eta formatu desber-
dineko lanak egin zitezkeen. Formatua ere
librea: marrazkiak, elkarrizketak...

Euskara, ikastola, Kilometroak, ongi pasa...
gauza asko lotu dira ekimen honen bidez.
Ideia, txalogarria.

Ea zorte pixka batekin gure DBH 2ko ikasleek sariren bat ere jasotzen duten!



“**B**agoaz Korrika! Eman euskara elkarri!...”, horrelaxe dio Esne Beltzak, aurren ospatu den Korrika 18.a alaitzeko egindako abestiak. Lasterketa, ttipi-ttapa, Andoainen hasi eta Baionan bukatu zen martxoaren 24an. Guk ere parte hartu genuen korrika noski, baina aurtengoan lasterka ez ezik modu bereziagoan ere parte hartu eta sentitu duqu Korrika.

Martxoaren 20an Xabier Solano eta Zigor Dz izan genituen gure artean besteak beste Korrikarako egindako "Bagoaz" abestia DBHko ikasleoi aurkezteko. Bide batez, ordubete inguruko kontzertutxoa ere eskaini ziguten.

Horrez gain, aukera paregabea izan genuen musika nahasketen inguruan gehiago jakiteko. Zigorrek txundituta utzi gintuen bere eskuen mugimenduek sortzen zuten doinuekin. Ikasleongan jakinmina pizten behintzat asmatu zuen!

Mila esker, bada, bi artista mundial hauei zuen musikarekin goiza alaitzeagatik eta euskararen alde lanean aritzeagatik!



BIZITZAREN SORRERA Haur-Eskolan

Ikasturteko azken hiruhilekoan bizi izan dugun esperientzia berri eta zoragarri baten berri ematera gatozkizue haur-eskolatik.

2-3 urteko haurrekin elikadurari buruzko proiektu bat landu ohi dugu bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, gaiak haurrengan sortzen duen interesetik abiatuta. "Zer dugu bazkaltzeko?" galdera goizean goizetik agertzen zaigu geletan, eta haren erantzuna eguneko menua osatzen duten argazkiekin osatzen dugu. Ildo honetatik abiatuz, menuak osatzeko erabiltzen diren osagai nagusiak zeintzuk diren aztertzen aritzen gara elikadurari buruzko proiektu honetan, eta elkarrekin osagaien jatorria zein den bilatzen eta topatzen saiatzen gara, nagusiki barazkiak, fruta eta animalia jatorriko elikagaiak (lurrekoak zein itsasokoak) bereiziz eta haiekin esperimentatuz: patata, porruak, kalabaza... baratzeetik (baratze txiki bat badugu haur-eskolan bertan), fruta zuhaitzetatik, esnea behiaren errapetik, arrautza oiloaren ipurditik...

... eta oiloa nondik?

Ba ikasturte honetan Imanol del Hierro eta Maider Aranguren gurasoek eman dizkiguten aukera eta erraztasun guztiei esker, hori ere ezagutzeko moduan izan dira gure haurrak, eta denek elkarrekin (haur, hezitzaile eta guraso) bizi izan dugu 22 egunez martxan eduki dugun arrautzen inkubazio-prozesua. Argiaren berotasuna (37°C) eta uraren hezetasuna (% 60-80 bitartean) bermatzea oinarritzkoa izan da prozesu hau aurrera eramateko, eta horretarako egunean bi aldiz arrautzei 180°-ko buelta eman behar izan diegu beroa eta hezetasuna alde guztietara berdintsu irits zitezen.

Maiatzaren 1erako aurreikusita zegoen txitak jaiotzeko eguna. Haurrek hainbeste esperotako unea galtzeko arriskua zutela ohartu ginen haur-eskola itxita egongo zela kontuan izanik; horregatik egun horretan arratsaldean ordu pare batez 2-3 urteko haurrei eta haien gurasoei haur-eskolara etortzeko aukera eskaini genien. Urduritasunez eta emozioz bizi izan genuen prozesuaren amaiera, batez ere arrautzak kraskatzen hasiak zirela ohartu ginenean, eta gainera... aurreikusitako egunaren bezperan haurrak eta hezitzaileak elkarrekin haur-eskolan geundela! Haur askok izan zuten lehenengo txitaren jaiotza zuzen-zuzenean ikusteko aukera, arrautzaren azala poliki-poliki nola kraskatzen, zultzen eta irekitzen zuten behatzekoa, beraz gure helburua betetzea lortu genuen! Ikusgarria izan zen guztiontzat. Hurrengo eguneko bisita ordua ere mantendu egin genuen, eta benetan ikaragarria izan zen txitak ezagutzera gerturatu ziren haur eta guraso kopurua!

Guztira 24 arrautzetatik 17 txita jaio ziren eta hauek astebetez haur-eskolan eduki genituen erabateko protagonista bilakatuta. Eta txiki zein handi, taldean zein gurasoen eskutik, txitei bisita ugari egin genizkien azken egunean agurtu arte, batzuk haurren etxeetara eta besteak jatorrizko baserrira joan aurretik. Esperientzia honek txiten ohiturak ezagutzeko ere balio izan digu, adibidez zer eta nola jaten/edaten duten, inolako estalkirik gabe goxotasuna zerk ematen dien... Dena izan da interesgarria gure txikientzat eta... baita helduontzat ere!

Bizipen zoragarria izan da eta horregatik gure eskerrik beroenak Imanoli eta Maiderri!

Ainhoa Garaño



BELOAGA **Gaztelu baten historia, herri baten historia**

Arkaleko harkaitzetan haizeak dantzan darabilen ikurrinak herri honen historiaren zati bat bertan dagoela dio. Bertan hain zuzen ere baitzen Beloaga, Feluaga edo Peluagako gaztelua eta bertan zutik daude oraindik ere gaztelua izandakoaren aztarnak.

1200. urtean Alfontso VIII.a Gaztelako erregeak Gasteiz bereganatu ondoren, Durangaldeko eta Gipuzkoako lurrak kendu zizkion Nafarroako erreinuari. Lur hauetan zegoen, beste hainbat gazteluren artean, Beloagakoa. Mende eta erdi geroago, 1366. urtean, Nafarroako erreinuak galdutako lurrak berreskuratu ahal izan zituen, Libourneko hitzarmena zela eta, berriz ere Beloaga nafarrena izatera pasa zen. Ondorengo urte luzeetan hainbat eta hainbaten gotorleku izan ondoren, 1516. urtean Cisneros kardinalaren aginduz eraitsi zela uste da. Hala ere, karlistadetan eta baita 1936ko Espainiako gerra zibilean ere, esate baterako, Beloaga beste behin protagonista izan zen.

Orain dela urte batzuk ordea, Nafarroa Bizirik 1512-2012 elkarteko zenbait kidek, Nafarroako erreinua izan zela berresteko, herri honen sinbolo izan ziren eta diren gazteluak berreskuratzeko lanak hasi zituzten, tartean Oiartzungo Beloaga gaztelua. Aranzadi elkartearen laguntzarekin indusketa lanak egin ondoren, begi bistan gelditu da paretak, zaharrak izanik ere, oraindik zutik dirautela.

Indusketa lanetan hainbat eta hainbat material jaso dute lanean aritutakoek: txanponak, labainak, espata puntak, balak, etab. Hauek denak erakusgai jarri ziren udaletxeko areto nagusian eta gure DBHko ikasleek erakusketa ikusteko aukera izan zuten. Gainera, Joxe Mari Iturriotz Nafarroa Bizirikeko kideak, hainbat azalpen eman zizkien erakusketa historian kokatzeko asmoz.

Hemen, beraz, Euskal Herriko, Nafarroako eta Oiartzungo historiako altxor handi bat. Eskerrik asko Nafarroa Bizirikeko kideei gure ikasleei emandako historiako eskola txiki baina era berean handi honengatik.



LARRIALDI PLANA. **HUSTUKETA SIMULAZIOA**

HAURTZARO IKASTOLAKo eraikuntzan ikasleak, irakasleak, ez irakasleak, gurasoak, garbitzaileak, sukaldariak eta bisitariak egoten dira uneoro. Eraikuntza publiko guztiek legez betekizun batzuk bete behar dituzte. Besteak beste, suteen aurkako plangintza eguneratua, suteen aurkako alarmak, su itzalgailluak eta barruko ur hartuneak ere prest eta egoera onean eduki behar dira.

Eusko Jaurlaritzak 2010eko AUTO BABES legean ordu arte zeuden arautegiak bateratu egin zituen eta horretara moldatzeko epe bat ere martxan jarri zuen. Haurtzaro ikastolak, azkeneko urte hauetan, lege hau baldintza egokietan betetzeko zenbait lan egin ditu:

- DBHko eraikuntzan eskailera berria egin da.
- Suteen alarma egokitu da
- Ikastolaren hustuketa eremuak berritu dira
- Korrodooretan ur hartuneak egin dira.
- 2013ko udan behe solairuan beste bi irteera ere egingo dira.
- Hustuketa simulazioa ere berritu da.



HUSTUKETA simulazioari dagokionez, ikasturte honetan suteen aurkako plangintzan indarrean dauden hustuketa ibilbideak martxan jarri dira. Zenbait gelatan, iazkoarekin alderatuaz, ibilbidearen zentzua aldatu da eta baita kanpoaldean metatzeko puntua ere. Aurten egindako hustuketa simulazioa egokia izan da, ibilbide berriak probatu dira eta eraikuntzan geunden pertsona guztiak ateratzeko txukun egin da. Hurrengo ikasturteetan hobekuntza batzuk izan daitezke: esate baterako, simulazioa egiterakoan suposizio bat eginez bideratu daiteke, irteera norabideak aldatu etab.

Lan hauek bideratzeko ikastolak kanpoko aholkularitza du. Lan arrisku prebentzioko MALGA enpresaren laguntza dugula aipatu behar da. Hobekuntzak tarteko, hustuketa simulazioa denon artean ahalik eta txukunena egitea espero dugu.



Hibaikarekin *arraunean*

Badira jada urte batzuk Hibaika elkartearen eskutik, arraunaren mundua hurbilagotik ezagutzeko aukera izaten dutela DBH 3. mailako ikasleek. Aurten ere elkarte honek Erreterian dituen instalazioak bisitatu dituzte eta arraunean aritzeko aukera ere izan dute.

Gorputz hezkuntzako saioan, bizikleta hartu, kaskoa jantzi eta pedalei emanaz bidegorriari jarraiki, hurbildu ziren Erreteriarra. Segituan bistaratu zuten Oiartzun ibaia itsasoratzen den puntua. Bertan, Jon, Antton eta Hodei zituzten zain ongi etorria egiteko.

Txirringak aparkatu eta arraunak hartu zituzten ikasleek ondoren. Talde batek "fosoan" oinarritzko teknikak ikasten zituen bitartean, beste taldeak "Ala" izeneko

arraun-ontzia hartu eta lehen paladak eman zituen. Uretan bertan azalpen ugari jaso zituzten patroien eskutik, arraunean egiteko teknikak eta aholkuak, hain zuzen ere. Proa, popa, estrobo... hitzen esanahia ederki dakite orain DBH 3. mailakoek!

Bueltan, nekatuxeago oraingoan, bidegorritik berriz ere bizikletan, itzuli ziren ikastolara. Kirol gogorak dira arrauna eta txirringarritza, ez al da horrela?

Eskerrik asko Hibaikako kideei, arrauna bezalako kirol politaren nondik norakoak azaltzeagatik eta zorionak lehiaketetan lortutako emaitza onengatik. Zorte on!

Jon, Antton, Hodei

KALEAN USO ETXEAN OTSO

Kutxa Fundazioaren Euro solidario programaren barnean kokatzen den KALEAN USO ETXEAN OTSO indarkeria matxistaren programa eskaintzen du, eta Haurtzaron otsailaren 27an DBH 3. mailako ikasleekin landu zen.

Saioak Ikertze taldeko bi kidek zuzendu zituzten: Kalean Uso Etxean Otsu unitate didaktikoaren egileak, eta indarkeria matxistaren biktimak batek.

Jarraian, ikasleekin batera saioan parte hartu zuen Donibane A. irakasleak bere kronika azaltzen digu.

Egunero ikasten omen dugu zerbait eta gaurkoa ez da nolanahikoa izan. Hitz edo esaldi batean deskribatu ezin daitezkeen pertsonak badaudela ikasi dut gaur. Gaur lehen aldiz, hitzaldi bat eta bertan jasotakoa hitz edo esaldi batean laburtzeko eskatu didate. Nire aurretik 20 ikasle inguru nituen lan bererako prest. Denen hitzak entzun ditut eta kontziente nintzen nire txanda iristear zegoela.

Unea iritsi da eta ez dut jakin nola deskribatu. "Ausarta" hitza izan da nire ahoak esan duena, baina barruan nuena sekulako ekaitza zen, sentimendu, gogoeta eta jakin-minen ekaitza.

Gaur, Leire (hitzaldiaren gidaria) eta Mati (Matilde) izan dira gurekin. Zergatik ez diodan ezer gehitu Mati izenari? Ba... Mati gauza asko direlako, hitz asko, sentimendu asko, ikasgai asko...

Gaurko hitzaldia indarkeria matxistaren ingurukoa izan da. Telebistako imajinak, irratietako berriak, egunkarietako orriak ikusi, entzun edota irakurtzea gogorra izan ohi da gai honi lotuta gabiltzanean, baina bere azalean indarkeria hau jasan duen emakumea zure aurrean jarri eta duintasuna erraldi bihurtzen duenean ohartzen zara zertaz ari garen hizketan. Bai, Mati, duintasunaren tamaina hautsi duzu, barruak ximurtu dizkiguzu, ezpainak behin baino gehiagotan hozkarazi, eskuak izerditan busti, begirada infinituan kokatu, arnasa barru-barruraino harrarazi eta konturarazi diguzu beldurrezko pelikulak benetan existitzen direla. Pelikulek bi ordu eskas irauten dute, zureak, ordea, denbora askotaz ere gehiago iraun du.

Indarkeria matxistaren hatzaparretatik ihes egin duzu ordea (ez dute emakume guztiek bukaera hori edukitzerik izan), eta hori nahikoa ez eta gugana hurbildu zara burua tente eta ez dakit nondik ateratako indarrez zure testigantza eman diguzu.

Ez naiz hitzaldiaren edukietan sartuko, irakasle naizen aldetik hori egokitu arren, zu ezagutu izanak beste guztia itzalpean uzten du eta. Pena bakarra, saio bukaeran besarkada bat eman ez izana dut, baina horrek konponbide erraza du, datorren kurtsoan duintasun lezio hauek ematen jarraitzen baduzu, Haurtzaron zure zain egongo gara eta besarkadarik gabe ez zara hemendik aterako.

Mila esker eta animo.

DANTZARI TXIKI EGUNA OIARTZUNEN

Haurtzaro ikastolak aspaldian zuen asmoa bete zuen joan den apirilaren 21ean. Izan ere, lehen aldiz gure herrian, dantzari txiki eguna ospatu zen. Denbora luzez jardun zuten egun hau prestatzen eta bideratzen Haurtzaro dantza taldeko zein ikastolako partaideek, azkenean heldu zen arte.

Bertara, Haurtzaro dantza taldeaz gain, beste zazpi talde gerturatu ziren. Besteak beste, Akelarre (Hendaia), Muxika (Lezo), Uda-berri (Tolosa), Andramari (Galdakao), Indarra (Gasteiz), Ikasbide (Donostia) eta bukatzeko, herriko taldea den Elizalde. Guztira, 240 pertsona inguru bildu ziren, dantzari, dantza irakasle eta txistulariak kontuan hartuta.

Egun osoko jarduna izan zen, goizetik hasita arratsaldera arte. Hasteko, dantza talde guztiak goizeko 10:30ak inguru ikastolako frontoian biltzen hasi ziren. Jarraian, 11:30ean, desfilea hasi zen, herrian barrena ibilbide bat jarraituaz. Ibilbidean zehar geldidueak zeuden eta dantza talde bakoitzak, bere txanda iristen zenean, prestatuta ekarritako dantzak egiteko aukera izango zuen. Hainbat dantza ezberdin ikusi ahal izan genituen bertaratu ginenok, herrialde ezberdinetako ohiturak nabarmentzen zirelarik.

Ibilbidea ikastolan hasi zen, Rafael Pikabea kaleko behe aldean lehen geldiduna egin zen. Gero, dantza talde guztiek, bidearekin jarraituz, plazako bidea hartu zuten, baina bertara heldu aurretik, maldan behera jaitsi ziren, Madalensoro pilotalekurantz. Han ere ez ziren geratu, eta Elorsoro udal kiroldegiraino jarraitu zuten. Bertan bai, bigarren geldiduna egin zuten. Segidan, askoz gehiago aurreratu gabe, Izaro arrandegiaren parean egin zen hirugarren eta azken geldialdia. Jada talde guztiek euren dantzekin kaleak alaitu zituztelarik, herriko plazara abiatu ziren eta bertan amaitu zen desfilea.



Goizeko saioa amaitutzat emateko, dantza talde guztiek batera bi dantza eskaini zitziguten Doneztebe plazan: Aurrekua eta Agintariarena. Jarraian, oroigarri bat eman zitzaion dantza talde bakoitzari Haurtzaro ikastolako Dantza taldearen izenean eta bertara gerturatutako guztiek, ikastolako jantokian bazkaltzeko aukera izan zuten. Izan ere, dantzari, txistulari, monitore eta laguntzaileentzat bazkaria doakoa zen arren, gainerakoek txartelak erosteko aukera izan zuten.

Bazkalostean, indarrak berreskuratuta eta festarako gogoz, plazan Triki-sound taldearen eskutik erromeria izan genuen. Arratsaldeko 17:00etan hasi eta 18:30 aldera arte, jendeak musikaz gozatzeko eta aspertu arte dantatzeko aukera izan zuten.

Besterik gabe, Haurtzaro dantza taldearen partetik eskerrik beroenak laguntza eman diguzuen guztioi. Beste bat arte!

AROA ALTUNA

Haurtzaro Dantza Taldeko dantzaria

AESLEME

80ko hamarkada bukaeran egindako ikerketa batek zioenez, bizkar-muineko eta burezur eta garuneko lesioak asko igo ziren istripuak zirela eta. Datuen larritasunaz kezkatutik, 1990. urtean AESLEME elkarte (Asociación para el Estudio de la Lesión Medular Espinal) sortu zen. Elkarte honen helburuen artean, istripu hauek saihesteko prebentzio lana egitea da, izan ere, aipaturiko lesioak, hala nola paraplegia eta tetraplegia, konponezinak dira.

Prebentzioa informazioan eta sentsibilizazioan oinarritzen denez, hezkuntza esparru ezin hobea da honetarako. Gure gaztetxoek ohitura egokiak zein diren jakin dezaten, hiritar arduratsuak izan daitezten eta horrela, beren osasuna zaintzen ikas dezaten ekintza ugari egiten ditugu urtero, eta tartean AESLEMEko kideen bisita izaten dugu.

Bi kide izan dira gurekin apirilaren 9an, bizkar-muineko lesioduna bata eta gai honetan aditua bestea. Saioa ondorengo puntuetan oinarritu zuten:

- Istripuen kausak eta hauek nola saihestu.
- Istripu bat gertatzen denean zer egin dauden lesioak ez larriagotzeko.
- Istripuen ondorioak: bizkar-muineko lesioak eta burezur eta garuneko traumatismoak: arazo fisiko, psikologiko eta sozialak.
- Ikasleen dudak eta galderak argitzea.

Horrelako prebentzio lanen emaitzak epe motzean ikusten ez badira ere, modu zuzenean iristen da mezua gazte-enganara, ordu baten inguruko saioaren bidez.

Zain dezagun bada gure eta inguruko osasuna!

Euskaraz bizi 3. kanpaina

Oraingoan, ikasturte honetako azken kanpainaz hitz egin nahi dizuegu.

Kanpaina hau Nazioarteko Liburuaren Egunaren inguruan egin dugu, apirilaren 15etik 26ra. Xedea ikastolako ikasleen artean irakurzaletasuna indartzea eta sendotzea izan da eta girotzeko, Juul kanpainareko egindako “*Milaka historia*” abestia ez ezik, Euskara Hobean Hobeko esaldi hau erabili dugu:

Arront liburu polita leitu dugu.



Urtero bezala, erakusketa izan da kanpainaren ardatza. Bertan, 2009tik aurrera argitaratutako liburu gomendagarriak izan dira ikasleen esku-
ra, eta Aitor Arana eta Joxe Mari Iturralde idazleek leku berezia izan dute.

Haur Hezkuntzako ikasleek irakurketari loturiko bi txoko izan dituzte: bata erakusketa orokorreko “Amo-
naren manta” izenekoa; eta bestea etxetik ekarritako liburuekin geletan atondu dutena.





Lehen Hezkuntzakoen egitarauan hainbat ekintza antolatu dira. Alde batetik, Nafarroako Ikastolen Elkar-teak bultzatzen duen Juul Kanpainan hartu dute parte. Ekimen honetan, LH 2. eta 3. ziklokoek 2009tik aurrera argitaratutako liburu eta ilustratzaileak gustukoena aukeratu dituzte. Ikastolako emaitzak beste zenbait ikasletoakoekin elkartu ondoren, Euskal Herriko liburu eta ilustratzaile gustukoena izendatu dira.



Bestalde, ikasle hauek erakusketa gelaz baliatzeko aukera izan dute eta bertan beren adinerako gomen-dagarriak diren liburuak irakurri dituzte. Halaber, apirilaren 15ean LH 6. mailakoek Joxe Mari Iturralderen bisita izan zuten eta apirilaren 16an LH 3. mailakoek Aitor Aranarena.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek ere parte hartu dute kanpaina honetan. Juul kanpainaren barruan liburu gustukoena aukeratzeaz gain, erakus-keta bisitatu eta Eskuttun Euskara Elkar-teak antolatu-tako "2. Literatur lehiaketan" parte hartu dute. Lehiaketa honetan, 6 libururen kontrazalak 6 daturekin (izenburua, argitaletxea, idazlea...) lotu behar izan dituzte eta gela bakoitzeko irabazleen artean liburu bana zozketatu da.

Hauxe izan da ikasturte honetako gure azken kanpai-na, baina datorren ikasturtean ere izango duzue gure berri, ordura arte, ongi izan!





KDR (KUADRILLATEGI)

Kaixo Txinpart!

Aurten e ikasturte bukaera uste miño lehen alletu zaigu ta, horrekin batea, Kuadrillategiri aio sateko garaia. Kurtso hau, oñ artekukin konparatuz, desberdiña izan da. Izan e, apuntatutako gazte kopurua haundiya zela kusita, kurtso hasieran taldia bi zatitan itteko erabakiya hartu ber izan baigenun. Hola, ostiral batin DBH1eko gaztiakin ta hurrengun DBH2kukin bilduz. DHB2ko gaztiak lehengo urtetik izautzen genittun ta, san berra do, bigarren urti hontan asko sendotu dela harremana. DBH1ekuk e gogotsu hasi dia ta egiya san oso talde politta ta jatorra osatu dugu denan artin; aupa zuek, gaztiak!

Kuadrillategi hasi genunetik kurtua bukatu den arte ekintza desberdin asko itteko aukera izandu dugu: antzezlanak, hizketaldyak, ginkanak, zinia, jolas desberdinak, etab. Hortaz gain, aurten Kuadrillategi itten den beste herri batzutako (Lezo, Pasaia, Orereta, Lasarte) gaztiak izautzeko aukera re izan dugu. Aurreneko kontaktua apirillin izandu zen Oreretan ospatu genun Kuadrillategi festa erraldoian. Goizin jolasak in genittun ta pixkanaka jende berriya izautzen hasi ta, bazkal ondorenin, "Ingo al deu" talde Andoaindarra-kin dantzatzeko aukera paregabia izandu genun giro erra sortuz. Oso egun politta ta berua izandu zen; berua harremanak onak sortu zilako miño baita eguzkiyak erki berotu zulako re!

Sortutako harreman hoik hola ezin tzutela geldittu pentsatuta, denan artin asteburu pasa politt bat pasa genun maiatzin Zuhatza irlan. Nahizta eguraldiyak ez asko lagundu, asteburu ahazteziña pasa genun, jolas ta ekintza desberdin asko in genittun ta tartin windsurf, arrauna, piragua, pedaleuak ta antzeko ur jolasak itteko aukera re izandu genun. Gauen belan re erki pasa genun beldurrezko "begirale galduaren bila" jolasakin ta gauin batzuntzat parrandak segittu in tzun, eh gaztiak! Kar, kar, kar! Esperientzi gogoangarriya, beraz, Zuhatzakua bai gaztiantzat ta bai gutzat ta, bateze, oso aberasgarriya lagun berri pilla batekin bueltatu galako.

Ikasturte hontan e tristurakin agurtzen dugu Kuadrillategi; miño pozik gaude urte oso politta izandu delako ta denak e asko ikasi ta gozatu dugulako. Milla esker gaztiak, mundialak zazte!

Besteik gabe, hurrengo urtian, berrize elkar kuso dugulakun... Ongi ongi pasa udara ta akortu: bizi euskaraz!

Besarkada bana,

Aitzol, Irati, Alazne ta Aiora (Kuadrillategiko begiralik).



Unai Elorriaga, DBH 4. mailakoekin solasean

Joan den otsailaren 26an, aukera paregabea izan genuen DBH 4. mailako ikasle eta irakasleok: Unai Elorriaga idazlea bertatik bertara ezagutu genuen, non eta hementxe, ikastolatik atera ere egin gabe.

Ordubeteko saioa izan zen. Ikasleek aurrez prestatu eta hari helarazitako galderekin osatu zuen jarduna eleberrigileak, eta momentuan sortutako galderak ere gustura erantzun zituen. Bere idazle-esperientziari buruz eta bereziki "Londres kartoizkoa da" (2009) eleberruari buruz aritu zen idazlea. Izan ere, ordurako irakurria eta landua zuten ikasleek lan hori. Nobelaren mamia eta egitura bereziak izaki, idazlea ezagutzeko jakinminez ziren ikasleak. Eleberria hobeto ulertzeko eta literatur sortzaileen bizimodua gertutik ezagutzeko balio izan zuen hizketaldiak.

Pribilegioa da literaturgileekin aurrez aurre solasean aritzeko aukera izatea. Jarrai dezagun, bada, literaturaz eta gure idazleez gozatzen.



haur Hezkuntza 1

LEHENGO EGUN BATEAN HH1EKO NESKA-MUTIKOOK GURE EGUN GUZTIKO LEHENENGO IBILALDIA EGIN GENUEN. IKASTOLATIK TIPI-TAPA ITURRIOTZEKO GARAÑO BASERRIRAINO JOAN GINEN. BERTAKO VALENTINEK ETA MARIA ANTONIAK, BASERRIKO ANIMALIAK ERAKUTSI ZIZKIGUTEN: BEHIAK, ARDIAK, AHUNTZAK, OILOAK, TXERRIAK... EDERKI PASA GENUEN!

GERO, BEHEKO SOROAN JOLASTU ONDOREN TRIPA ZORRIAK GUR-GUR HASI ZITZAIZKIGUNEAN FRONTOIRA JOAN GINEN BAZKALTZERA. BAI GOXOA ZEGOELA AMATXOK, AITATXOK EDOTA AMONAK PRESTATUTAKO BAZKARIA!

MOTXILAK BIZKARREAN HARTUTA BIDE GORRIK BARRENA TXARAKO BASORANTZ ABIATU GINEN. UFFF! A ZER NOLAKO BEROA EGITEN ZUEN, ETA BASORA IRISTEKO IGO BEHAR IZAN GENUEN MALDA EZ ZEN MAKALA IZAN. GAINERA SIESTA EGIN GABE GEUNDEN, HANDITZEN ARI BAIKARA!

AZKENEAN BASORA IRITSI GINEN, BATZUK NAHIKO KOSTATA. HAN ERE, JOLASEAN JARRAITU GENUEN BERTAKO MAKILA, LORE ETA HOSTOEKIN. SEKULAKO GIROA ZEGOEN ZUHAITZEN ITZALPEAN!

BUKATZEKO, IKASTOLARA ITZULI GINEN. HANTXE GENITUEN ETXEOAK GURE ZAIN. IA GURE IRAKASLEEK NOIZ PRESTATZEN DUTEN HURRENGO IBILADIA, GU BEHINTZAT PRETS GAUDE, ENERGIAZ GAINEZKA.

HH1



haur Hezkuntza 2

PRA, PRA! PRA, PRA! TZUNPA, TZUNPA, TZUN!
ENARA, POLON ETA HAURTZARO ZIRKUAK ETO-
RRI DIRA IKASTOLARA: PAILAZOAK, TXIMUAK,
ELEFANTEAK, LEHOINABARRAK, ETA... ARRIS-
KUTSUENAK LEHOIAK, GRRRRRRR!



ZEINEN ONGI PASA DUTEN
HIRU ETA LAU URTEKOEK
ZIRKUAN!

BAI GOXOA! OGIA EGITEN
IKASI DUGU GARMENDIA
OKINDEGIAN. ESKERRIK
ASKO OKINEI.

HH2



haur Hezkuntza 3

KAIXO OIARTZUAR JATORRAK:
NI XANGO MATXINSALTOA NAIZ, IKAS-
TOLAKO HH3KO NESKA-MUTILEN
LAGUNA.

NIRE LANA IKASTOLAKO BETEBEHA-
RRETAN LAGUNTZEA DA ETA, NAHIZ
BERAIEK EZ IKUSI, NI BETI INGURUAN
NABIL ETA IKASTEN ARI DIREN GUZTIAZ
JABETZEN NAIZ. GAUR APIRILEAN IKASI
DUGUNAREN BERRI EMATERA NATOR.



GURE GAIA UDABERRIA IZAN DA ETA LORE, TXORI,
TXIMELETA ETA XOMORROZ HITZ EGIN ONDOREN,
ERLEEN INGURUAN GEHIAGO IKASTEA PENTSATU
GENUEN.

ERLEEN BIZIMODUA OSO INTERESGARRIA DELA
KONTURATU GARA (ERREGINA, ERLEMANDOAK, LAN-
GILEAK), EGITEN DUTEN GUZTIA APROBETXATZEN
DUGULA (EZTIA, ARGIZARIA, PROPOLEOA) ETA AZKE-
NIK GARBI GERATU DA BERAIEK GABE LORE ETA
FRUITU GUTXIAGO IZANGO GENITUELA.

HAU DENA HOBETO IKUSTEKO PAGOETAKO ITURRA-
RAN BASERRIRA JOAN GINEN. OSO BISITA INTERES-
GARRIA IZAN ZEN ETA GAUZA ASKO IKASI GENITUEN,
BAITA KANDELA EGITEN ERE, BAINA NESKA-MUTILEI
GEHIEN GUSTATU ZITZAIENA BAZKAL ONDORENGO
JOLAS PARKEA IZAN ZEN.

GURE GELAN HONETAZ HIZKETAN ARI GINELA GELA-
KO NESKA BATEK KONTATU ZIGUN BERE AITONAK
ERLANTZAK ZITUELA BAINA AZKENEKO URTEAN LIZ-
TOR ASIARRAK BESTEAK JATEN ARI ZIRELA ETA
GERO ETA ERLANTZA GUTXIAGO ZITUELA.

NAHIZ XOMORRO GUZTIAK NIRE LAGUNAK IZAN,
BESTEAK HILTZEA EZ ZITZAIEN BATERE ONDO IRU-
DITU ETA IKASTOLAN IKASTEN HASI GINEN NOLA
BEREIZI HEMENGO ERLEA ETA ASIARRA.



ZUEK ERE IKASI NAHI BADUZUE JAKIN:
ASIARRAK HANDIAGOAK DIRA
ILUNAK DIRA
HANKA HORIAK DITUZTE
AURPEGIA GORRI-HORIXKA DUTE
ETA AZKENIK JAKIN ALFERRAK DIRELA ETA BERE
HABIAN EZ DAGOELA EZ EZTIRIK, EZ ARGIZARIRIK.

ORAIN ETXERA NOA UDA LASAI-LASAI PASATZERA,
BAINA ADI EGONGO NAIZ ETA HABIAREN BAT IKUSIZ
GERO UDALTZAINEI ADIERAZIKO DIET KEN DEZATEN.
ONDO PASA DENOK!

XANGO HH3



LH 1. zikloa - 1. maila


Denbora makinari distira atera eta Antzinako Grezia eta Erromara bidean jarri gara...fiouuuuu... DBHko ikasleei esker, garai hauetako informazioa jasotzeko aukera izan dugu.




Gaiari bukaera emateko, erromatarrek Oiasso hirian utzitako aztarnak ikusi genituen.





LH1





Ikastolaren eguna 2013











LH 1. zikloa - 2. maila

LH 2. MAILAKOAK OIARTZUN IRRATIAN

“Gora Gutenberg, Gora Marconi” gaia landu dugu. Komunikabideak dira.

Guk Oiartzunen irrattia badugu eta bertarako saio bat prestatzea proposatu ziguten irakasleek.

“Bai, bai. Biba!”, erraza izango zela pentsatu eta pipa pasako genuela, “Superguai”.

Hasi ginenean puf! a ze lan pila eta urduritasuna: zer tokatuko zait egitea? Eta gaizki egiten badut?

Gero lasaitu ginen bakoitzak nahi zuena egin zuelako. Jo!, baina ikasi egin behar zen esan behar genuena. Hara! entsaioak eta entsaioak; etxean, gelan, jolas-garaietan.

Azkenean grabaketa eguna iritsi eta... beldurra, poza, urduritasuna, kezka..., “Ondo egingo al dut?”, “Amatxok entzungo al du?”, “Ezagutuko al naute?”, “Eta huts egiten badut?”... Baina grabaketaren ondoren oso gustura ginen, hain ondo pasa genuen! Mikroarekin hitz egiten, kaskoak buruan, jo! Mundiala! Oso esperientzia atsegina izan zen, aberasgarria ere bai.

Eta gero zain egon behar ea noiz emango zuten irratitik. Herri osoan entzun behar zen. Ondo entzungo ote da, ondo irakurri ote dut, txistearekin barre egingo dute, lotsatuak ginen, zer pentsatuko ote zuten etxekeok.

Eta entzun genuenean, gure poza izugarria izan zen, hain ondo entzuten zen! Baina batzuek gure ahotsa ez genuen ezagutu!

“Berriro joan nahi dugu” esan genuen denok irakasleek galdetu zigutenean ea errepikatzerik nahi ote genuen. Asko gustatu zaigu esperientzia.





LH 2. zikloa - 3. maila

AIREA


Kaixo denoi:

Azkeneko hiruhileko honetan HAIZEArekin batera ero-ero eginak ibili gara, baita ederki pasatu ere. Hemen doakizue bizitutakoa bertsoan (gaiaren inguruan eta kometak egiten):

HIRUGARREN MAILAKO
GAIA DA AIREA
FIRIN-FARAN MUGITZEN
SORTZEN DA HAIZEA
KOMENI ZAIGU DENOI
GARBI ARNASTEA
GU DENOK NAHI BA DUGU
SANO BIZITZEA.

BI LISTOI ELKARREKIN
DITUGU PEGATU
LOKARRIA PUNTATIK
PUNTARA LUZATU
PLASTIKOZ ESTALITA
ISATSA GRAPATU
URKABERA IGOTA
PRIMERAN PASATU.

Ongi pasa uda!





LH 2. zikloa - 4. maila

EZINBESTEKO URA

Uraren gaia landu dugunean, bere ezaugarriak ezagutzeaz gain erabilpen egokia ere praktikan jarri dugu.

Naturatik gure etxeetara egiten duen ibilbidea aztertu dugu Penadegi eta Oiartzungo ur-biltegia ikusiaz. (Penadegiko argazkiak).

Jolaserako ere zein baliagarria den!!!



Arratsaldean, berriz, material birziklatuarekin eraikitako itsasontziak Oiartzun ibaian proban jarri genituen.

Eta ez ziren hondoratu!



Altzibarren, bazkal orduan, Claudio Bravorekin topo egin genuen eta argazki hau ateratzera animatu genuen.
AUPA ERREALA!



LH 3. zikloa - 5. maila

BERTSOLARITZA

Astean behin lantzen dugu bertsolaritza. Txandaka egiten dugu Bertsolari Elkarteko irakaslea den Ander Lizarraldekin eta tutoreekin.

Oso ondo pasatzen dugu klaseetan. Saioak dibertigarriak izateaz gain, bertsosaren eraikuntza nola egin behar den ikasten ari gara: aukeratutako gaiari buruzko ideia sortu, ideia hori neurrian jarri eta bukaeran kokatu, familia bereko oinak aurkitu eta azkenik bertsoa osatu. Karramarroak bezala, atzetik aurrera.

Ikasturtean zehar egindako lanaren emaitza erakusteko maiatzaren bukaeran Madalensoron bertso jaialdi bat egiten dugu.

Ariketa eta jolas asko egiten ditugu bertsosaren inguruan eta horrela gure hizkuntza aberasten dugu. Dena egin daiteke bertsoen bitartez, baita ipuin bat kontatu ere. Hemen duzue adibide bat. Ea gustatzen zaizuen!



HIRU TXERRIKUMEAK

1

Iritsi zen egun bat
etxetik joateko.
Amak esaten zien
etxea egiteko.

2

Txikia azkar-azkar
diju jolastera,
etxeak nahiz ta izan
itxura tristea.

3

Enbor bat behar du bai
iteko txabola.
Txerritxo ertaintxoak
egin du etxola.

4

Langile txerritxoak
hiru anai ziren.
Zaharrenak harrizko
etxea egin zuen.

5

Otsoa badator ta
beldurtu gara gu.
Bi txerri txikitxoak
etxea bota du.

6

Paretik ezin bota
berak etxeari.
Tximinitik bota ta
lapikun erori.

Doinua: "Ama begira zazu"



LH 3. zikloa - 6. maila

SEXU HEZIKETA IKASTAROA

**Apiril bukaeran, maiatz hasieran LILIMA elkarteko Mainerren bisita jaso dugu. Berarekin Sexu Heziketari buruzko sei orduko ikastaroa egin dugu. Saio haue-
tan dakigunaz, jakin nahi dugunaz eta jakin behar du-
gunaz jardun gara. Horrela, hainbat gauzaz ohartu
gara:**

- SEXU hitza latinetik datorrela ("sexare": bereizi) eta neska edo mutila izatea dela,
- SEXUALITATEA, berriz, neska / mutila izatearen sen-
tipenak garatzea dela, hau da, nola bizi dudana naizen
neska / mutil hori, alegia;
- Sexualitateaz hitz egiterakoan oso garrantzitsua dela
hitz zehatz eta zientifikoz jardutea;
- Gure sexu-organo garrantzitsuenak larru-azala eta bur-
muina direla;
- ...



Egia esan, hasieran lotsa handia ematen zigun ahoa ire-
kitze berak ere, baina ikastaroak aurrera egin ahala, gero
eta erosoago moldatu gara. Alde batetik, Mainerrek la-
saitasun osoz hitz egiteak ere asko lagundu zigun. Bes-
tetik egin ditugun jolasek ere asko lagundu digute gure
pentsamenduak partekatzen. Beste aldean berriz, iku-
si genuen bideoa jarriko genuke (ezinegon galanta era-
gin baitzigun) eta oraindik urduriago jarri ziren batzuk gu-
rasoei egin beharreko galdeketaekin (egin ondoren hain
terriblea ez zela ere konturatu ginen).

Orokorrean oso gustura egon gara eta bukaerako eba-
luazio fitxak datorren ikasturtean ikastaro honekin ja-
rraitzeko prest gaudela argi utzi du.

LH6





Garazi Elgarresta
DBH 1

Tigrea

DEFINIZIOA



Felidoen familiako ugaztun haragijalea da, asko Asian eta Indonesian daude, handia eta indartsua, ile laranja beltzez marratua duena, oso basatia eta harrapakin bila gauez ateratzen da. Panthera edo Leo tigris ere deitzen zaio.

HABITATA



Lehen tigreak Siberiatik zetozen, gero, Turkian ere bazeuden. Orain, ordea, Asian bizi dira gehienbat, hango oihan tropikaletan eta Siberiako koniferetan bizi dira. Baina bere habitata oso

aldakorra da. Era berean, lakuak, ur ugari eta, noski, elikadura dagoen lekuetan bizi dira. Lehen animalia hau leku askotan zegoen eta orain leku gutxitan bakarrik, Asiaren hegoaldean ehiztari asko daudelako. Gaur egun tigre gehienak gatibutzan bizi dira. Beste tigreak bakartiak eta lurraldekoiak dira. Orokorrean baso sakonetan bizi dira, baina sabana eta lur zati zabal eta irekietan ere bizi daiteke.

ELIKADURA

Felido hau haragijalea da, hau da, haragia bakarrik jaten du. Normalean tigreak animalia handiak harrapatzen ditu, baina harrapakin txikiak ere jan ohi ditu, adibidez, tximuak, paumak, erbiak, arrainak, txoriak eta narrastiak. Adibidez Siberiako tigreak harrapakin gustukoena basurdeak, oreinak eta orkatzak dira. 40kg jaten dituenegon egon daiteke hiru eta sei egunen



bitartean ezer jan gabe. Haratustela era jan dezake. Tigreak gauez ehizatu ohi dute. Normalean, tigreak ehizatzeko bilatzen duen harrapakina belarjalea da eta tamaina handikoa. Tigreak bere tamaina eta indarra erabiltzen du harrapakina ehizatzeko. Oso isilik joaten da bere harrapakinarengana eta hamar metro-tara dagoenean bere gainean salto egiten du, lepoan kosk egin eta horrela janaria lortzen du. Tigreak 90km/h abiadurara irits daiteke korrika. Tigre nagusiak gai dira 9-10 metroko jauziak egiteko. Tigrea gehien salto egiten duen ugaztunetako bat da.

DESKRIBAPEN FISIKOA



Tigrea felidoen familiako animalia handiena da eta gehienetan bere larruazala laranja da marra beltzekin apainduta. 180 eta 360 kg artean pisatzen du

eta 1,4 eta 2,8 m artean neurtu, buztana gabe (buztanak 65 cm inguru neurtzen du). Bere hortzek normalean 7,5 eta 8 cm artean neurtu ohi dute. Felido guztiak bezala, oso ehiztari onak dira eta muskulu eta hatzapar handiak dituzte, hobeto ehizatzeko. Gainera bere biboteak oso sentikorrek dira. Ez dio beldurrik urari eta, hori dela eta, igerilari bikaina da tigrea. Bere pisua dela eta, ezin da zuhaitzetara igo. Animalia hau normalean 20 urte inguru bizi ohi da. Tigrea da felidoen familiako bakarra koloreetan ikusten duena.

UGALKETA



Ugatzun hauek bibiparoak dira, hau da, amaren sabeletik ateratzen dira umeak.

Edozein urtarotan ugal daiteke, baina normalean udaberrian eta neguan ugaltu ohi dira.

Emeak lau hilabeteko ernaldiaren ondoren (113 egun) bat eta sei kume bitarte izaten ditu.

Kumeak hainbat urte egoten dira amaren inguruan ehizatzen ikasi arte.

Tigre kumeak hamalagarren egunean begiak irekitzen hasten dira eta jaiotzean 1–1,5 kg bitarte pisatu ohi ditu.

Tigreak 4-5 urterekin erreproduzi daitezke, baina 8–10 urterekin ezingo dute.

BALIAGARRITASUNA



Tigrearen larruazala oso preziatua da mundu guztian. Horregatik erabiltzen dute, animalia ehi-zatu ondoren, arropa edo alfonbra gisa.


Baita ere oso ohikoa da zirkoetan eta horrelako lekuetan ikustea tigreak akrobaziak eta erakus-keta egiten.

Honetaz aparte, Asian eta horrelako lekuetan, kremak egiteko erabiltzen dira. Kremak normalean bizkarreko mina kentzeko erabiltzen dira.

MOTAK

Ondorengo hauek dira tigre motak: Bengalako tigrea, Malasyako tigrea, Indotxinako tigrea, Bali-ko tigrea, Pertiako tigrea, Sumatrako tigrea, Javako tigrea.

BESTE EZAUGARRIAK



Oso penagarria da animalia honen espezie-tako bizidunak oso-oso gutxi daudela. Gutxi gora-behera 3.000-4.000 besterik ez dago mundu guztian.


Animalia honen azala Asian medikuntzarako erabiltzen da.

Orain dela gutxi konturatu ziren lehoia eta tigreen artean espezie berri bat sortu dela: Ligrea.

hatzak BETE LAN



DBH 1 - 2. maila



Zergatik ari da euskara galtzen?

Maddi Ruy
DBH 2B



Euskarak historian zehar hainbat arazo eta oztopo topatu ditu, baina denak gainditu ditu. Orain, ordea, galtzen ari da, baina zergatik?

Lehenik eta behin, gazteek beren hizkuntza sortu nahi dutelako gurasoek eta pertsona helduek bezala ez hitz egiteko beste hizkuntzetatik hartzen dituzte hitzak eta esamoldeak, euskarako berezko hitz eta esamoldeak baztertuz. Erabilera oker horren adibide dira: pero, pues, sin más, tio, mitiko, ves, sobrada, ya, guapo, o sea... hitzak eta hauts eginda nago, begia bota diot, ilea hartu, suertetara bota... esamoldeak.




Bestalde, euskara, gaztelania ez bezala, ikastea derrigorrezkoa ez denez jende asko eta askok ez du euskaraz ikasten, badakielako gaztelaniarekin moldatuko dela. Izan ere, Euskal Herrian euskaraz ikasteko eskubidea eta gaztelania ikasteko beharra dugu. Gaztelaniarekin bakarrik komunikatzen direnak, euskaraz ikasteko beharrik sentitu ez dute, euskara ikasi ez dutenak dira.

Esan behar da euskaraz dakiten guztiek ez dutela euskara beti erabiltzen, erabilera eremuen arabera, hau da, hizkuntza erabiltzen den egoera edo gune zehatzen arabera, hala nola etxea edo lagunartea, eskola edo ikastola, instituzioak, komunikabideak... Euskaraz dakien pertsona batek beste pertsona bati gauza bat galdetu eta besteak euskaraz ez dakielako erdaraz hitz egin behar izaten du. Lagun koadrila batean denek euskaraz jakinda ere ohituragatik erdaraz hitz egiten da.



Hori guztia dela eta, nire ustez euskara bultzatu egin behar da, ahal den guztietan euskaraz hitz eginez, euskarazko esamoldeak erabiliz eta jendea euskaraz ikastera bultzatuz.



Irati Zabala
DBH 2



PROYECTO AMANDA:

INVISIBLE MELISSA KANTOR

Este libro me ha gustado mucho porque a pesar de que sea muy largo, se lee muy fácilmente gracias a que no se pierde el interés ni en una sola página de su maravilloso contenido.

Trata sobre Amanda, una chica muy misteriosa que apareció en un instituto. Allí se relacionó con varias personas, jurando a cada una de ellas que era su único amigo o amiga, e inventándose una historia para cada uno, que les contó como si fuera su verdadera vida. Después desapareció sin avisar, dejando solamente un par de pistas indescifrables.

Mi personaje favorito es ella, Amanda, porque es extraña y misteriosa. Le encantan las frases célebres y los tótems. Además, es un genio de las Matemáticas, ciencia que, según ella, le enseñó su padre; aunque nadie sepa nada de su familia (unos creen que no tiene padres, otros que vive con sus abuelos, otros con su madre, su padre...).

Aun así, en varios fragmentos me he visto reflejada en Callie, una amiga de la protagonista y que narra este precioso libro. Va mostrando todos y cada uno de los sentimientos y pensamientos, que coinciden con los que yo imagino que tendría en situaciones semejantes.

En mi opinión, la clave para que este libro sea espléndido está en el misterio, porque engancha y anima a leer, todo en un tiempo menor del que tarda una persona en leer 406 páginas.

Además, da la opción de resolver el misterio que rodea a Amanda; dejando el libro en plena intriga y animando a los lectores a que entren en Internet e intenten descifrar el código.

Es un libro de los que te hacen pensar mucho, y centrarte mejor en la historia, te arrastra hasta formar parte de ella.

Yo se lo recomendaría a personas a las que les guste la intriga.



Paul San Sebastián
DBH 2



LA HERMANDAD

DE LA ETERNA OSCURIDAD

Jaoquín Londáiz

Este libro me ha gustado mucho porque contiene escenas de misterio, intriga, acción e incluso amor, y es esa mezcla la que hace el libro tan interesante.

Jonas Bigelow, el protagonista, es un chico de 13 años que de pronto descubre un mundo mágico y fantástico que anteriormente desconocía y aprende que él, al igual sus antepasados, puede hacer magia. Puede que más de un lector se vea identificado en este personaje tan carismático.

El libro en sí tiene muchas páginas, pero se leen con tal facilidad que una vez abierto el libro no se puede dejar de leer; en otras palabras: cala en la curiosidad del lector, en las ansias de saber lo que vendrá a continuación.

En algunos casos, he podido apreciar algunas similitudes con la famosa saga de "Harry Potter". Pero a medida que van transcurriendo las páginas, se ve que son historias totalmente distintas y no tienen nada que ver.

Yo recomendaría este libro a las personas que les gusten historias relacionadas con la magia y el misterio. Además, este libro contiene un final tan repentino que delata que habrá una segunda parte o que es sólo el principio de una gran saga.

Resumiendo todo lo dicho pienso, que es un buen libro y merece la pena leerlo.



DBH 2 - 3. maila

ENERGIA HISTORIAN ZEHAZ: OIARTZUN

Oiartzungo historia kontatu nahi genuke, baina beste ikuspuntu batetik, energiaren ikuspuntutik alegia.

Oiartzungo aldizkari, artxibo eta liburutetan bilatzen aritu gara eta gure informazioa aberastu dugu.

Beti ez dugu leku beretik edo modu berean lortu energia, eta zuei honen berri eman nahi dizuegu.

Historiaurrean lehen gizakiak, hasiera batean, gizaki eta animalia energia (indarra) erabiltzen zuten hainbat gauza egiteko. Gero, hainbat tresna asmatu zituzten eguneroko bizimoduan laguntzeko; animaliak hiltzeko, landareak hazteko, etab. Geroago hasi ziren eguzkiko energia erabiltzen; bai sua egiteko, baita beste gauza askotarako ere.

Gero, palankaren antzeko tresna sinpleak asmatu ondoren, ura haizea eta egurra erabiltzen hasi ziren. Gurpil hidraulikoa erabiltzen hasi ziren, eta asko ugaritu ziren errotak, baina uraren indarra edo energia, hidraulikoa zerrategietarako, ureztatze sistemarako, etab. erabiltzen zuten.




Egur-ikatza lortzeko Txondorrak eraikitzen zituzten. Txondorra ikazkinek egur-ikatza egiteko xedeaz eraikitzen zuten egur labea da. Egurrezko mendi txiki bat egitean datza, ondoren lurrez estali, sua eman eta egur ikatza sortzen da.

Oiartzunen hainbat eta hainbat egin zituzten, gero egur ikatza saltzeko; sukaldatzeko, berotzeko edo burdinoletan burdinazko tresna eta lanabesak egiteko.

Gaur egun ikatza ez dugu hainbeste erabiltzen, elektrizitatea baitugu. Hala ere, gaur egun, erakustaldiak emateko, garai zaharretan egur ikatza eta energia nola lortzen zuten erakusteko eraiki ohi dituzte.

ENERGIA HIDRAULIKOA OIARTZUNEN



Hainbat datuk adierazten dute Oiartzunen hasierako edo gaurko industriaren noranzkoa nolakoa izan zen, errotak dira: Aragurengo errota, Eldozko errota, Legor errota, Auzlegi edo Aritzabaloko errota, lurritako errota, Isastiko errota, Aranederko errota, Zuloagako errota eta Paguagako errota. 18 errota zeuden garai batean.


Eider Tomé
Imanol Elizondo
Sara Alberdi
Ane Sein



an. Horietatik, gaur egun, gehienek ez dute funtzionatzen, eta besteak desagertu egin ziren (Errenteriako, Barnebidetako eta Hernaniko irin industria handiak sortzearekin batera). Metodo bera erabiliz (gurpil hidraulikoa), burdinazko tresna eta lanabesak ekoizten hasi ziren. Horrela, Oiartzunen izandako 13 (edo gehiago) burdinola sortu ziren.

XX. mendean, energia hidraulikoa aprobetxatuz korrante elektrikoa sortzeko beste erakuntza batzuk zentral elektrikoak izan ziren. Adibide gisa, Penadegi eta Okilegi

BURDINOLAK



Burdinolak Oiartzungo aspaldiko bizitzaren berezko elementuak dira, baita burdin industria ere. Haraneko baso erraldoiak, mendietako burdina meategiak bertan egoteak eta aparteko baldintza hidrografikoengatik sortu ziren burdinolak Oiartzunen.

Oiartzunen nahiko burdinola egon dira, gehienak mota berekoak, baina beste batzuk ezberdinak ziren. Hasiera batean oso sinpleak ziren, burdina besoen poderioz lantzen zen eta geroago gabiola bihurtu ziren. Hauetan, uraren indarra aprobetxatuz gabia edo mailua mugitzeko indarra lortzen zen. Ura presa batean gorde eta presako atea ireki eta ur jauzi batean urak lortutako indarra aprobetxatzen zen. Urak gurpil hidraulikoa mugitzen zuen eta gurpilak ardatza. Ardatzaren abiadura aprobetxatuz espeka bidez mailuak edo hauspoak mugitzen ziren.

1514an bederatzi burdinola zeuden martxan. Baina urte honen bukaeran, lau burdinolak funtzionatzen zuten. Denborarekin burdinolak desagertzen joan dira. Egun, Euskal Herrian funtzionatzen dutenak erakusketetarako erabiltzen dira baina ez burdina lantzeko, nahiz eta Oiartzunen denak galdu diren eta bat bera ere martxan ez egon.

GAUR EGUNGO EGOERA:

Gehien erabiltzen dugun energia baliabidea elektrizitatea da. Gaur egun, ordea, Oiartzungo udalak Iberdrolari erosten dio energia. Ez dute beraiek produzitzen, asko kostatzen baita energia lortzeko instalazioak egitea eta mantentua oso garestia baita.

Arritxulo aterpetxean adibidez, beraiek sortzen dute beren energia, turbina hidroelektrikoa dute, eta baita eguzki plakak ere. Arritxuloz gain, kiroldegian ere eguzki plakak erabiltzen dituzte ura berotzeko.

Garbi ikus daitekeenez asko aldatu da energia ekoizteko modua historiaurretik gaur egundaino.



DBH 2 4. maila

Gure historiaren

Gordelekua

Joan den asteartean, maiatzaren 21ean, Oiartzungo udal artxiboa bisitatu genuen. Oiartzungo udaletxearen beheko solairuan dago, nahiz eta garai batean ganbaran zegoen.

Bertara iritsi ginenean, Koro Paskual artxibozainak egin zigun ongietorria. Pasaitar honek Madrilan master bat egin zuen artxibozaina izateko. Gaur egun, hogei urte darama lan horretan.

Udal agiritegia bi zatitan sailkatua zegoela ikusi genuen, historikoa eta administratiboa. Hango ordenamenduak asko harritu gintuen, dena oso txukun antolatua baitzegoen. Oiartzungo historiako pergaminozko dokumentu zaharrena bertatik bertara ikusteko aukera izan genuen, 1560koa hain zuzen. Nolanahi ere, Oiartzungo artxiboak eduki duen dokumenturik zaharrena, 'Burniolen Forua' izenekoa, desagertua dagoela argitu zigun. Baita 1320ko 'Carta Puebla' ere.

Denboran zehar gure artxiboa ez da beti leku finkoan egon. Adibidez, gerra garaietan inguruko herrietara eramán zuten (Goizueta-ara, Artikutzara) inork ez suntsitzeko.

Artxiboak ikerketa lanak egiteko leku estrategikoak dira; Oiartzungoa ere ez da salbuespen. Horren adibide, Xabier Olaskoaga Urtaza doktoreak egindako ikerketa: Oiartzun Haraneko osasungintzako profesionalak 1597-1936, Mugarri bildumako 19. alean argitaratu zena iaz.

Bitxikeria modura, Paskualek XIX. mende bukaerako xanistebanetako kartel bat erakutsi zigun. Eta guretzat harrigarria izan zen zezenketak festarik garrantzitsuenak zirela ikustea. Doneztebe plazan egiten ziren eta udaletxeko zutabeetan egurrezko itxitura jartzeko markak ikusi genituen.

Bukatzeko, esan beharra dago ordubeteko saio atsegina eta interesgarria izan zela guretzat. Horri esker, gure herriko historiaz gehiago dakigu.

Kultura klasikoko DBH 4. Mailako ikasleak



UNA GRAN EXPERIENCIA CON LAURA GALLEGO

El pasado miércoles, día 22 de mayo, un grupo de alumnas de 4º de la ESO tuvimos el privilegio de conocer a la escritora de literatura fantástica Laura Gallego, creadora de la trilogía "Memorias de Idhún" o "¿Dónde los árboles cantan?", entre otros títulos.

Esta escritora valenciana estudió Filología Hispánica y actualmente está escribiendo su tesis doctoral. Ganadora del Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil de 2012, participó ese día en Literaktum donde presentó su nuevo libro publicado el mes pasado bajo el título "El libro de los Portales".

La sesión comenzó a las 17:30 h. y entonces empezó de verdad nuestra gran experiencia. Estuvimos tres horas que se nos hicieron muy cortas escuchándola con gran interés. Al principio habló sobre el libro y después nos dejó formular todas las preguntas que quisimos.

Para terminar, formamos una gran fila para que estampara su firma en nuestros libros. Al final pudimos sacar una bonita imagen junto a ella.

DBH 4. mailako Gaztelania eta Literaturako ikasleak

DBH 4KOEN AGURRA

Aurten ere beste talde batek agur esan digu. Ondorengo bertso hauetan laburbildu dute euren ikastolako ibilbidea. Hemendik aurrera, zorterik hoberena opa diegu hasiera doazen bide berrian. Ongi izan!

**Duela hamar bat urte
zer nolako marka
hasi genuenetik
hemengo aldapa
teletabiz jantzita
zein une aparta
LHn bihurtuz
ametsen pirata
batera amestea
politago da (e)ta.**

**DBHn itsaso
bilakatu gara
hormonak gorabe(he)ra
marean gisara
etorkizuna ere
Gertu dugu jada
banandu beharko (d)ugu
denok beharbada
berdin du amaiera
zoriona bada**

*DBH 4ko ikasleak
Hitzak: Iraitz Mateo*

Izaskun Zubizarreta

munduko onenen artean



Izaskun Zubizarreta 1970. urtean Oiartzunen jaio zen. Hautzaro Ikastolan, Orereta Ikastolan, Donostiako erizaintza eskolan eta azkenik Bartzelonan emagina ikasketak egin ditu.



Mendi eskian Euskadiko txapelketa, open Altitoym-en lehena (Pirinioetako lasterketa gorenatariko bat), Espainiako txapelketa, Pierre Mentan bosgarrena (Alpeetan lehiatzen den mundu mailako lasterketa), Metzalama (Alpetako lasterketa ospetsua, bi urtetik behin egiten da) eta "Patrulla de los Glaciares" (Alpeetako beste lasterketa ospetsu bat, hau ere bi urtez behin lehiatzen da) lasterketa famatuak. Txirrindularitzan, beriz, Irati Xtrem eta Indurain-en lasterketa, besteak beste, irabazi ditu. Mendi lasterketetan Zegama-Aizkorri maratonia bosgarrena, CamileXtremen txapelketa, mendi lasterketa zuzenetan Euskadiko txapelketa...

1.- Noiz hasi zinen mendian? Nork bultzatu zintuen?

1990. urteko udan nire ahizpa batek Pirinioetako zeharkaldia Iruñeko Anaitasuna taldekoekin egin behar zuen, azken orduko arazo batengatik ezin izan zuen joan eta ni bere ordeaz joan nintzen. Orduan hasi zen nire mendizaletasuna.

2.- Zein gailur garrantzitsu lortu dituzu?

Hasieran Pirinioetako zenbait gailur garrantzitsu garatu nituen: Aneto, Aspe, Posets, Vignemale... batzuk oinez eta beste batzuk berriz eskiekin. Egutetik egunera mendia gehiago ezagutzeaz gain ziurtasuna hartu eta beste gailur garrantzitsu batzuk igo nituen: Elbrus, Mont Blanc, Cervino, besteak beste, Europan; Kilimanjaro Afrikan, Aconcagua eta zenbait sumendi Hego Ameriketako, Lenin eta Kyrgyzgistan Nepalen...

3.- Zein da igo duzun gailurrik garaiena?

7.200 m dituen Guinchuvvi da. Mendi hau Nepalen dago eta eskiz lagun talde batekin igotzea lortu nuen.

4.- Noiz eta nola hasi zinen lehia munduan?

2006. urtean lagun batek erdi "engainatuta" mendi eskiko Euskadiko txapelketa apuntatu ninduen. Gehiegi entrenatu gabe bigarren gelditu nintzen. Orduan gehiago entrenatzen hasi eta Espainiako txapelketara joan nintzen eta handik munduko txapelketara.

5.- Baina mendi eskian lehiatzeaz gain beste kirol batzuetan ere ibiltzen zara ezta?

Bai, bai. Neguan mendi eskia egiten dut baina udaberrian eta udan txirrindularitzan eta mendiko lasterketetan aritzen naiz. Bi kirol hauek neguko eskiaren osagarri dira.

6.- Oiartzuar bat munduko onenekin?

Ba... horrela suertatu delako, besterik gabe.

7.- Horrelako kirol maila lortzeko asko entrenatu beharko duzu eta nola uztartzen dituzu lana eta kirola?

Nik zorte handia dut: normalean lana egunero 15:00etan bukatzen dut Elizondoko osasun etxean, zertxobait bazkaldu eta entrenatzera. Neguan kiroldegian eta inguruko mendietan elurra badago mendi eskia egitera. Udaberrian eta udan beriz egunak luzeagoak dira eta txirrindua hartzeko denbora izaten dut; garai honetan ere mendian korrika asko ibiltzen naiz. Hori bai, oso diziplinatua naiz eta egunero zerbait egiten dut.

8.- Zergatik gomendatuko zenieke gure irakurleei kirola egitea?

Osasuntsua izateaz gain, lagunak egiten dituzulako, leku zoragarriak ezagutzeko aukera duzulako, kirola egin ondoren zure buruarekin lasaia gozatzeko...





Bildutako xoxekin zer?

Gabonetan, Haurtzaro ikastolako ikasleak Olentzero egunean kalez kale gabon kantak abestera ateraz ziren. Bildutako dirua Oartzunen urte askotan apaiza izan den eta une honetan Ekuadorren dagoen Joxe Mari apaizari bidali zitzaion. Joxe Mariaren eskerrak jaso genituen, baina berarekin elkarrizketa-txo bat egiteko harremanetan jarri nahi izan dugunean ezin izan dugu, distantzia edota teknologia berriak direla eta.

Bestalde, Haurtzaro ikastolako 5 urteko ikasleek etxean zituzten jostailuak ekarri zituzten ikastolara. Jostailu hauekin, Nekane Mariarena eta DBHko gazte batzuen artean azoka bat antolatu zen eta jasotako dirua Etiopiara bidali zen, bertan lanean dagoen Maixabel Arbideren lan taldera hain zuzen. Ekimen interesgarri honi buruz hitz egin dugu 5 urteko neska mutikoekin. Pozik erantzun dituzte gure galderak.

ZERTARAKO EKARRI ZENITUZTEN ETXKO JOSTAILUAK?

Etiopiara eramateko, beharra dutenei laguntzeko, arropa eta jostailuak ez dituzten umeei emateko...

ZER EGIN ZENUTEN EKARRITAKO JOSTAILUEKIN?

Ikastolako San Tomas azokan salgai jarri zituzten. Herriko jendeak erosi zituen eta salmenta horretatik jasotako dirua Etiopiara bidali zuten.

ZUEN USTEZ, ETIOPIAKO UMEEI LAGUNDU AL DIEZUE?

Gure ustez bai.

EKIMEN HONEKIN, ZER IKASI ZENUTEN?

Gure irakasleek bertako bizitzaz hitz egin ziguten, hondarrez egiten dituztela beraien etxeak, hangoek ez dutela dirurik eta lan asko egin behar dutela zerbait lortu ahal izateko. Ez daukanari lagundu egin behar zaiola, asko maite ditugula...

ZER GEHIAGO EGIN ZENEZAKETEN HAUEI LAGUNTZEKO?

Gure eltzetzotik diru pixka bat eman.

MAIXABELI ZER ESANGO ZENIETEKE?

Animo eta horrela segitzeko. Guk hemendik gauzak emango dizkiogula berak hango neska mutikoei laguntzeko. MUXU BAT BERARENTZAT ETA HANGO NESKA MUTIKO GUZTIENTZAT. 5 urteko neska mutikoen mezua helarazteko eta bere berri jakiteko Maixabelekin jarri gara harremanetan. Zenbait galdera egin dizkiogu oso gustura erantzun digularik. Erantzun hauek, hango errealitatean kokatzeko aukera eman digute, beraz, une batez bidaia dezagun Etiopiara.

Oartzungo Aldako baserrian jaiotako Maixabel Arbide, aspaldiko urte hauetan Etiopian bizi da. 1982an hainbeste maite duen bere jaioterria Oartzun, utzi eta alde egin zuen oso ezberdina zen beste inguru batetara. Besteei laguntzea eta besteentzat lana egitea zuen helburu eta imajina dezakegunez bertan topatu zuena ez da Oartzunen garai horretan utzi zuena bezalakoa. Dena den, Maixabelen hitzak irakurrita argi ikusten da emakume honek zerbait topatu duela herrialde berri honetan, bere bizitza bertan duela eta nahiz eta Oartzun askotan gogora ekarri, ez duela momentuz itzultzeko inongo asmorik.



ZENBAT DENBORA DARAMAZU HERRIALDE HORTAN?

1982ko azaroa ezkerro Etiopian nago. Hasiera batetan sendagile mugikor talde batetan partaide izan nintzen. Talde honek Ogadéneko gerraren ondorioz sortutako baztertutako kanpoetan lan egiten zuen. Ondoren 1983-84ean Etiopian sortu zen gose garaia zela eta, beste baztertutako kanpo batzuetara bidali gintuzten lan egitera.

1987an, partaide naizen "Mariaren Misiolari Franziskanen, erlijio kongregazioko ahizpak", Bushulora etorri ginen. Bertan, Eliz Katolikoak nekazal ospitale bat dauka, Etiopiako hegoaldeko kapitela den Hawassako kanpoaldean. Ospitale hau orain dela hiru urte arte Hawassan eta bere inguruan egon den ospitale bakarra izan da. Une honetan Hawassanek 316.842 biztanle ditu eta bertako hirian beste ospitale bat eraiki dute.

KONTAIGUZU ZERTXOBAIT ZAUDEN HERRIATAZ, INGURUTAZ, ZURE EGUNEROKOTASUNEZ, EGUNAREN ZEHAR ZER EGITEN DUZUNAZ....

Beti arreta handia eskaini izan diegu nekazal herriei. Hauetan prebentziorako osasun programak bermatzen saiatu garelarik, beste artean: umeen txertoak, emakumeen aurre-jaiotze zainketan, ur edangarriaren bidean eta osasun programak, letrinen eraikun-



tzak... Une honetan, Tuberkulosi, Lepra eta HIESaren prebentzio eta tratamendurako programak ditugu.

2005ean "MATERNIDAD SEGURA" proiektua hasi zen. Proiektu hau, nekazal gunetan ematen zen ama eta umeen heriotza tasa altuarengatik sortu zen. Garai horretan, amen heriotza zifra ofiziala 673koa zen jaiotzen ziren 100.000 ume bizirengatik. Proiektu hau, Austriako Karitas eta Austriako Gobernuak garapeneko agentziak egiten duten finantzaketari esker atera zen aurrera. 2012an 1817 emakumeek erditu zuten ni nagoen herrialde honetan, Bushulon.

PASA ZIREN GABONETAN, 5 URTEKO IKASLEEK EKARRITAKO JOSTAILUEKIN EGINDAKO AZOKAN JASOTAKO DIRUA ZUEI BIDALI ZIZUETEN. ZERTARAKO ERABILI ZENU-TEN....., ZER DA GEHIEN BEHAR DUZUENA, PREMI GEHIENA DUENA....?

Lehen aipatu dudak bezala ume eta emakumei eskaintzen diegu arreta berezia. Zuen ikastolako 5 urteko umeen jostailuekin lortutako dirua erabili dugu errekurso ekonomiko ez dituzten nekazal gunetako ume gaixoen diagnostiko eta tratamenduak ordaindu ahal izateko. Aberri honetan medizina prebentiboa dohainekoa da, baina sendatzeko medizina berriz ez da dohainekoa, ez Gobernuak zentrotan, ezta eliz edota ONGtako zentrotan ere. Gobernuak politika "Coste compartido" delakoa eramaten du aurrera.

Nekazaritza gunetan, batez ere, jende ugari dago "Coste compartido" delako hau ordaindu ezin duena. Hau dela eta orain dela urte batzuk sortu genuen "behartsuaren kutxa"ren sistema. Kutxa honetan, zuen ikasleek egin duten donazio pribatu bezalakoetan bidalitako dirua sartzen dugu. Kutxa honetatik ateratzen dugu dirua, ordaindu ezin duten guztien ospitaleko gastuak ordaintzeko. Honi esker, gaixo dagoen ume edo helduren bat ez da etxera joango artatua izan gabe sendagilearen zainketako gastuak ezin dituelako ordaindu.

Asko eskertzen dugu Gabonetako azokan jostailuekin bildu zenuen dirua, eta espero dugu, diru honi ematen diogun erabilpenarekin zuek ere ados egotea.

OIARTZUN GOGOAN IZANGO DUZULA PENSATZEN DUGU. ZER BOTATZEN DUZU FALTAN, ZER DUZU GOGOAN?

Faltan bota baino gehiago, esan behar dut beti sentitu naizela oiartzuarra. Oiartzungo inguru, abesti, festa, ohitura, kultur, hizkuntza, lagun eta familiarekin lotura afektibo handia daukat. Hainbeste urte Oiartzundik kanpo egotearen ondorio bat izan da euskararen erabilpena, euskara erabiltzen ez dudanez, hitz egiteko garaian zailtasunak izaten ditut, baina ulertzeko berriz ez dut arazorik.

MILA ESKER MAIXABEL. PLAZER BAT IZAN DA ZUREKIN HITZ EGITEA. SOLIDARITATEAREN IZPI ARGI BAT DA ZUK ETA ZURE TALDEAK ETIOPIAN EGITEN DUZUEN LANA, BALIAGARRIA BEZAIN ABERATSA.

IA BIDALITAKO DIRU HONEKIN ZERBAIT ARINTZEN DEN BERTAN DAGOEN ZULOTXOA!



Haurtzaro ikastola - 2013ko azaroa



Maialen Elortza

Maialen Elortza DBHko 4. mailako ikaslea dugu. Ikastolan azkeneko pausoak ematen ari da, eta laster bere bizitzako ibilbidean Batxilergoko esperientzia berriari ekingo dio. Agur esan baino lehen, azken urte hauetan idazteko duen gaitasunaz hitz egin nahi izan dugu.

- **Kaixo Maialen! Irakasle izan garenok zure idazle hazia aspaldi antzeman genuen. Hori baieztatzeko, hor daude azkeneko bi urte hauetan irabazi dituzun Azkue sariak, poesia alorrean, eta baita Oiarzungo prosa-poesia lehiaketetan jaso dituzunak ere. Gustura egongo zara, ezta?**

Bai, oso gustura.

- **Nola sortu da zugar idazle izateko zaletasuna?**

Ez dakit. Txikitatik gustatu izan zait fantasia eta ipuinak, baita istorioak asmatzea ere. Prosa eta poesia lehiaketarako idatzi nituen lehen lanak eta bazirudien nahiko ona nintzela idazten baina ez zen zaletasun bat ere. Orain irakurtzea ere oso gustuko dut eta idaztea ere geroz eta gehiago, behin jarrita nahiko gustura egiten dudan zerbait baita.

- **Idazle gazteek diote idaztea ihesbide modua ere badela. Zure kasua horrelakoa al da?**

Ez bereziki. Nire ustez, nik nire mundura ihes egin baino gehiago, nire mundua edo nire pentsamenduak ekartzen ditut idaztean, ez dut ihes egiteko beharrik sentitzen.

- **Idazten hasten zarenean, zertan pentsatzen duzu? Nondik dator zure etorria?**

Ilargira joateko erraztasuna dut. Txikitan gurasoek mendira eramaten nindutenean istorioak asmatzen nituen txangoak motzagoak egiteko. Orain ipuin bat edo poesia bat idatzi behar badut nahiko erraza egiten zait gaiak aurkitzea gauzarik sinpleenekin ere istorio bat kontatu daitekeelako. Behin gaia jakinda askotan ez dut jakiten ipuina nola bukatu edo zer gertatuko den, baina ongi hasten bazara eta pertsonaiei bidea ongi markatzen badiezu gero erraz garatzen da istorioa.

- **Ipuinetan eta poemetan badirudi gizarte-ko gaiak jorratzea aukeratzen duzula. Aurtengo Azkue sarian aurkeztutako Baztertutako Zapata gehiago egon ez dadin poema zein izan da helarazi nahi izan duzun mezua?**

Poema hau Budapest nazismoaren garaian hildako juduen omenez egindako monumentu batean oinarritzen da. Bertan fusilatzen zituzten, baina fusilamendua baino lehen zapatak kenarazten zizkieten.

Horregatik monumentu honek iraganean egindako hainbat hutsegite gogorarazten dizkigu eta berauez ikasi beharko genukeela, baina oraindik ez dugu lortu.

- **Duela urte batzuetako Kantauri itsasoko azken antxoa naiz ipuineko pertsonaiaren, eta 6 ordukoaren artean ba al dago antzik? Nolakoak dira zure pertsonaiak?**

Antz pixka bat badutela uste dut azken urte- etako pertsonaiek. Askok gaur egungo hainbat arazori aurre egindakoak baitira: antxoaren galera, etxe galtzeak, pobrezia kaleetan...

- **Hitzak, lexikoa... irakurritz gureganatzen ditugula esaten da. Zer eratako liburuak irakurri izan ohi dituzu?**

Abenturazko eta fantasiako liburuak gustatzen zaizkit gehien, baina denetik irakurtzea ere gustatzen zait.

- **Zein da orain arte zure obrarik maitatuena?**

LHko 5. eta 6.ean Misterios romanos izeneko bilduma gustatu zitzaidan eta azken aldian Suzanne Collins-en "Gose jokoak" eta Miguel Delibes-en El camino gustatu zaizkit gehienbat. Hala ere, ez nuke esango liburu bat dudarik maitatuago beste bat baino.

- **Eta idazlerik gustukoena?**

Caroline Lawrence, Suzanne Collins, Casandra Clare, Cornelia Funke, Miguel Delibes...


- **Etorkizunean idazle moduan ikusten al duzu zure burua? Edo beste bideren bat hartu nahiko zenuke?**

Ez nuen inoiz pentsatu idazlea izatea, baina orain batxilergoaren aukeraketarekin eta etorkizunean pentsatzen hasi behar dudala eta, ez zait ideia txarra iruditzen. Hala ere, beste zerbaitetan lan egitea gustatuko litzaidake eta agian denbora librean idatzi.

- **Uda berehala dugu, eta irakurtzeko aukera handiagoa ere bai. Zein liburu aholkatuko zenieke zure adinekoei?**

Aukeratzen zaila da, baina agian azken aldian irakurri ditudan egokiak izan daitezke, lehen aipatutako "Gose jokoak" edo "El camino" bera.

**Eskerrik asko, Maialen, utzi diguzun guztia-
rengatik. Ea hurrengo urtean ere Oiarzungo
idazle gazteen argitalpenetan zure lanen berri
izaten jarraitzen dugun. Eta zorte on!**





Lur Kortak

antzerkiaren magian murgiltzen

Lur Kortaren izena entzun orduko imajina asko datorkigu burura: antzerki lanetan hasitako gaztea, Oiartzungo prosa-poesiako sari banaketa alaitzen duen pertsonaia, herriko liburutegian hurrez inguraturik ipuinak kontatuz arratsaldea goxatzen duena, antzerki tailerretan irakaslea, ama lanetan parkean ikusten dugun emakumea... eta auskalo zenbat fazeta gehiagotan ikus dezakegun!

T.- Oraindik gaztea zara, baina gauza asko egin dituzu orain arte. Nola aurkezten duzu zure burua?

Aktore eta ipuin kontalari bezala. Zorionez, lan arloan antzerkiarekin eta ipuinekin zer ikusia duen lanetan nabilelako, lan munduan hasi nintzenetik.

T.- Antzerkia egin, antzerkia egiten irakatsi. Aukeran?

Antzerkia egin, dudarik gabe. Irakasle lanetan aritzea ongi dago, baina irakasle lanak gehigarri bezala egiten ditut, nahiz eta, bide batez aprobetxatu nahi dut esateko, zuzentzen ditudan Oiartzungo lau taldeak zoragarriak diren. Ikastolako LHko 4., 5. eta 6. mailakoek ikaragarritzko gogoia jartzen dute; beraz, plazer bat da beraiekin lan egitea.

T.- Aktore ona izatea zer da?

Ez dakit nola erantzun horri. Ona izatea ikuspuntuaren arabera doala uste dut. Aktore on asko daude gaur egun langabezia, eta niretzat txarrak direnak lanean...

T.- Gustuko dituzun gaiak eta rolak joratzeko askatasuna ematen dizu antzerkiak?

Inprobisazioekin lan egitea gustatzen zait, beraiei interesgarriak iruditzen zaizkien gaiak jorratuz. Eta noski batzuetan horrek askatasuna ematen dizu nahi duzun edo izan nahi ez duzunaren paperean jartzeko.

T.- Hautzaro ikastolan antzerki tailerrak dinamizatzen edo zuzentzen ari zara aurtan, eta arrakasta izan dute. Zer eskaintzen die antzerkiak neska-mutilei?

Ondo pasatzea. Horretaz gain, ariketa-jolas ezberdinak egiten ditugu ahotza eta gorputza lantzeko. Taldean disfrutzea da gure beste helburuetako bat.

T.- Konta ezazu talde bakoitzarekin egiten ari zaren lana, inpresioak, anekdotak...

LHkoekin beraien ideiekin nik idatzitako antzezlan bat prestatzen ari gara. DBH eta Batxilergokoekin ordea inprobisazioetatik ateratzen diren eszenatxoaren puzzle bat egiten ari gara.

Ekainean nahi ditugu taularatu, beraz lan handia egin behar dugu oraindik. Zeren, nahiz urte guztian lan egin, taulartzeko ordua iristen denean, gauza pila daude lantzeko.

Oso talde ezberdinak dira. LHkoak oso langileak dira, beti daude lan egiteko prest, eta DBHkoak ez dira hain zorrotzak, askotan lortzen dute ni haiekin sarjentu moduan jartzea. Zentzu horretan, txikiek handiei gauza asko erakutsiko liekete.

T.- Antzerkia utzi gabe, baina badaramazkizu urte batzuk ipuin kontalari. Nolako ibilbidea egin duzu lan horretan?

Bai, gustura nabil egia esan, azken boladan lan handia egin dut ipuinen arloan eta Euskal Herriko txoko ugari erakutsi dizkit lanbide horrek. Hurrei ipuinak kontatzea esker onekoa da, gurasoe-kin izaten ditut komeria gehiago.

T. Zer ipuin mota gustatzen zaizkie, orokorrean?

Nire ustez, ipuinak ez du garrantzirik, garrantzitsuena kontatzeko

modua da. Saioa entzun eta ikustera etortzen zaizkidan haurrak gauza bereziekin erakartzen saiatzen naiz.

T.- Ipuinaren kontaketa barruan, zer da umeei gehiena gustatzen zaiena?

Ipuinekin gozatzea eta gehienetan parte hartzea. Nik bi ataletan banatzen ditut ipuin saioak. Lehenengo erdian nik kontatzen dut eta bigarren erdian inguruan ditudan haurrek protagonismo pixka bat hartzen dute.

T.- Azken urteotan geroz eta ipuin kontaketa gehiago antolatuta ohi dira herrietan. Krisi ekonomikoaren eraginik izan al da hor ere?

Bai, leku askotan antzezlan bat kontratatu beharrean, ipuin kontaketa bat antolatzen dute. Merkeagoa da. Baina, hala ere, badi-ra urte batzuk ipuin kontaketa asko antolatzen dela Euskal Herrian. Ipuin kontalari ugari eta oso onak baititugu inguruan.

T.- Gurasoek ba al dute ohiturarik umeei ipuinak kontatzeko?

Denetik egongo da, baina uste dut gehiegi ez dela kontatzen. Dena dela, saiakera egiten dutenak badaude eta ziur nago etxeko-koen arteko kontalari onak izango direla. Niri ere ama lanetan kosta egiten zait ohiturari eustea, baina egun bat bai, bestea ez etxean ere horrelako lanak ere tokatzen zaizkit. Bikotearekin tartekatzen dudana da. Gauean egiteko ohitura dugu eta batzuetan nekatuta zaude, baina esfortzu txiki horrek merezi du.

T.- Azkeneko batean gaztetxoei euskaraz idaztera animatzen duen egitasmoan, SMS lehiaketa, Motxian by, ikusi zaitugu. Zerk bultzatuta?

Euskara zerbitzuek mesedea eskatu ziguten eta euskararen alde zenez, ez nuen dudarik izan. Gainera, arrakasta handia izan zuen, sms pila bildu ziren 180 baino gehiago. Bide batez esan nahi dut antzerki ikaslea den Lur Gaztelumendi aukeratutako bat izan zela.

Gaurkoari bukaera emango diogu. Kanpoan gauden publikoaren aldetik txalo zaparrada dator. GORA ARTISTAK!



"Gu DBHko antzerkiko taldekoak gara eta ostiralero klasea dugu Lur Kortarekin. Orain, LH6-koei aurkeztuko diegun antzerkia prestatzen ari gara. Nerabazaroko arazoei buruzkoa da. Lan bikaina egiten ari gara. Horrekin hasi baino lehen, Inauterietako aurkezpena prestatzen aritu ginen. Hurrengo urtean apuntatzea aholkatzen dizuegu LH6-an zaudetenei. Oso ongi pasatzen da. ANIMATU!"



Mattin Apaolaza



Mattin Apaolaza 13 urteko mutila da, ikastolako ikaslea, eta dagoeneko esperientzia liluragarri bat izana du: antzezte profesionaleraino batera, jendaurrean obra garrantzitsua antzezte. Zehazki **Soinujolearen semea** antzeztanari buruz ari gara, **Tantaka** taldeak azken hilabeteetan han eta hemen antzeztu duena.

• **Mattin, salto handia eman duzu. Nola izan da aukera hau?**

Oso esperientzia polita eta berria izan da niretzat. Inoiz ez dut pentsatu izan horrelako zerbait egiteko aukera izango nuenik. Obra hori antzezteko sujerentzia aitzak egin zidan, ea gustukoa izango ote nuen, eta animatu eta proposamenari baietz esan nion.

• **Estreinaldia Bilbon izan zen. Eta ondoren, nondik nora ibili zarete?**

Donostian, Gasteizen, Iruñean... ere egon gara. Baina egonaldi luzeena eta deigarriena Madrilan izan da.

• **Zein izan da zure papera?**

Protagonista nagusia David da, eta nik bera interpretatzen dut txikitako garaian. Bestalde, obrako momentu orokor batzuetan, esate baterako koroa egiten dugunean, talde osoarekin batera aritu naiz.

• **Tantaka taldekideei elkarriketak egindakoan galdetu zaie ea zer moduzko esperientzia izan den Madrilan euskaraz antzezte. Zuretzat nolakoa izan da?**

Bai, oso berezia eta arraroa izan da Madril bezalako hiri handi batean euskaraz egitea. Ez da ohikoa.

• **Prestaketa lanak, ikusten ez den hori, eramangarria al da?**

Bai, baina bere lanak baditu. Hasieran gidoia idatzita zegoen, baina eszenografia probaz proba finkatzen joan ginen, poliki-poliki aldaketak edo moldaketak egin. Eta hor adi egon behar nuen.

• **Oraindik oso gaztea zara, baina aspalditik izan al duzu antzerkirako zaletasuna?**

Txikitatik gustatu zait antzerkia egitea, moztarotzea. Baina orain arte ez dut pentsatu horrelako zerbait hainbeste jenderen aurrean egiteko gai izango nintzenik.

• **Zer da antzerkiaren mundutik gehien erakartzen zaituena?**

Oihalaren atzean dauden gauzak ikustea, taldearekin antzerki mundua bizitzea.

• **Eguneroko zure bizitzan eraginik izan al du esperientzi honek?**

Ez dut aldaketa handirik sentitu, ikastolara egun batzuetan ez naizela etorri, hori bakarrik. Bestela, beti bezala jarraitzen dut.

• **Etorkizunean, bide honetan jarraitzeko gustatuko al litzaizuke?**

Nik ezetz esango nuke, oraingoz behintzat.

• **Bukatzeko, inguruan beste emanaldirik eskaini behar al duzue?**

Udara ondoren, agian.

Eskerrik asko, Mattin.

Tapoi bilketa,

Tapoiak ekarri ditut!! Tori tapoia, jaso tapoia... **T**APOIAK gora eta behera. Gure ikastolako ikasleek badakite tapoiak ez direla zakarrontzira bota behar eta birziklatu egin behar direla. Zakar ezberdinak nora botatzen diren barneratu duten bezala, tapoien ekimen hau ere ongi barneratu dute eta kontutan hartzen dute zakarrontzira bota baino lehen.

Txikienean ea zertarako gorde behar diren galdetzen dute, kokorrenek, berriz, badakite zertarako gordetzen diren.

Beñatentzat dira tapoi hauek. Beñat Lizaso Mujika 1981ean jaio zen Oiartzunen. Haurtzaro ikastolako ikasle ohia da. Bederatzi urte zituela Usurbilera joan zen bizitzera, eta ordutik bertan bizi da. Beñatek 1995ean, orain dela hemezortzi urte, hanka galdu zuen bizikletarekin istripu bat izan ondoren. Orain, gure ikastolara etorri da bisita bat egitera. Guk galdera batzuk egin dizkiogu eta bere bizitzaren nondik norakoak kontatu dizkiugu.



Aspaldi ikastolan izan gabe, ezta?

Bai, aspaldian ez naiz etorri nire txikitako habiara. 3 urtetan hasi nintzen Haurtzaro ikastolan eta LHko bigarren mailara arte egon nintzen bertan. Gero etxebizitza aldaketa izan genuen eta honen ondorioz utzi behar izan nuen nire txikitako ikastola. Askok aldatu dira bertako instalazioak, kanpokoak batez ere; frontoia, futbol zelaiak, jantokia... Pentsa, garai batean, Madalensorora joaten ginen bazkaltzera. Irakasleez ere gogoratzen naiz, baita ze geletan egoten nintzen ere.

Zer eta nola gertatu zitzaizun ezbeharra?

13 urte nituela infantil mailan entrenatzen nuen "Dana Ona" taldearekin. Egun batean, bestetan bezala errepidera atera nintzen nire taldekide batekin. Lasartetik Andoainera gindoazela istripu bat izan genuen, kamioi batek harrapatu gintuen. Nire laguna onik atera zen, baina nik berriz zauri larriak izan nituen, hala nola besoetan, aurpegian eta hankan. 6 hilabete ingratuta egon ondoren ospitaletik atera nintzen, baina ez sartu nintzen bezala, hanka bat falta bainuen.



zertarako ote?



Egun gogorrak bizitutakoak ezta?

Bai, oso gogorrak. Hasiera batean ez nintzen egoeraz jabetzen. Baina noski, denborak eta egunerokotasunak nahitaez errealitatean kokatzen zaitu, honek dakarren guztiarekin: tristura, beldurak, etsipena...

Baina, tira, nire aldetik jarri nuenari eta nire inguruan zeudenen laguntzari esker aurrera egin nuen. Ospitalean nintzela zenbait bisita eduki nituen, bai nire antzera gorputz atal bat falta zutenena, baita atal ortopedikoa zutenen bisita. Batzuek besoa eta besteek hanka, baina bizitza aurrera egiteko gogoa zuen jendea zen. Beraiek garbi adierazi zidaten gorputzeko atal bat faltatzea ez zela gainditu ezineko muga bat.

Beraz, poliki-poliki esan nion nire buruari: "Beñat, aurrera egin behar duzu". Eta halaxe, hemen nago 18 urte beranduago.

Handik aurrera zer, nola egin zenuen aurrera?

Garai horretan nire gurasoek taberna bat zuten eta hauei laguntzen aritu nintzen, protesi baten laguntzaz mugitzen nintzelarik. Baina gerora, protesi horrek arazoak ekarri zizkidan, gorputzera egokitu ezinik, min handia ematen zidan eta. Horrela, kendu egin behar izan nuen honek sortzen dituen muga guztiekin. Protesirik gabe makuluak hartu behar.

Gaur egun zertan ari zara?

Beti gustatu zait kirola egitea. Istripua eduki baino lehen bizikleta zen nire gustuko kirola, baina ordutik beldurra hartu nion bizikletari eta asko kostatu zitzaidan berriro honen gainean jartzea. Urteak pasa ahala, oztopoz oztopo lortu dut beldurra gaintzea eta nire txikitako ilusioarekin jarraitzea. Euskal Herriko federazioarekin Espainiako txapelketan parte hartu dut, eta bi taldekideekin txapeldun ateratu naiz.

Orain, egunero entrenatzen dut une honetan helburu batzuk buruan ditudalarik. Hurrengo olinpiada "paraolimpikotan" parte hartzea gustatuko litzaidake baina, noski, hau ez da erraza. Askok entrenatu behar da eta nire entrenamenduekin jarraitu ahal izateko hanka berria behar dut. Beraz, hanka zenbat eta lehenago lortu, orduan eta azkarrago hasiko naiz nire entrenamendu saioekin. Bestalde, korri egiteko ere protesia behar dut.

Palaz ere ibiltzen naiz, zeinek esan nire egoeran frontoian ibil daitekeenik. Ba bai, gorpildun aulkian jolasten dugu, banaka edota binaka. Besteek ez bezala guk bi botera jo dezakegu pilota, errazago iritsi gaitzen. Bestetik, kotxeko gidabaimena ateratzen hasi naiz. Honetan animatzea ere asko kostatu zait beldurak tarteko zirela, baina, tira, beti besteen menpe egon behar izateak ez du askatasunik eskaintzen. Gainera, nik uste badela garaia etxekoek taxilari lanarekin bukatzeko eta neronek bakar bakarrik nire gisa mugitzeko.

Une honetan lanean ari al zara?

Ez, hanka ez izatearen beste muga bat lanarena da, eta momentuz, ezin dut lanik egin. Lehen aipatu dudan moduan nire bizitzan zehar ostalaritzan egin izan dut lan, baina honetarako hanka behar dut. Bestela, makuluak erabili beharko nituzke eta honela ezingo nuke behar bezala moldatu. Hanka ezinbestekoa dut nire lanbidearekin aurrera jarraitu ahal izateko.

Saiatu naiz ezintasun maila lortzen, baina, istripua izan nuenean 13 urte besterik ez nituen ez didate onartzen eta trabak besterik ez ditut jasotzen.

Tapoien bilketarena nolatan bururatu zitzaizuen?

Nirearekin hasi aurretik, entzuna genuen bestelako hainbat egoera ere honelako ekimenei esker atera zirela aurrera. Ez da erraza, lana asko egin behar da emaitzak ikusteko. Gainera, pazientzi eta konstantzi handia eskatzen ditu. Tapoi tona batek 200 euro balio ditu eta pentsa zenbat tapoi beharko diren tona bat osatzeko. 18 mila euro lortu behar ditugu hanka berria erosteko. Momentuz 13 tona lortu ditugu, eta 17 falta zaizkigu, baina, pausoz pauso lan eginda, argiren bat ikusiko dugulakoan gaude. Hala ere, tapoi bilketa toki batean baino gehiagotan egiten da zorionez, Usurbil eta Irunen besteak beste.

Baina, istorio honetan, Arantza eta Xebas Beñaten izeba-osabak ere, protagonista zuzenak dira. Izan ere, astero etortzen dira ikastolara ikasleek ekartzen dituzten tapoien bila. Arantzak kontatu digunez, tapoi hauek garaje batean gordetzen dituzte eta hainbat kilo lortutakoan birziklapen enpresa batera eramaten dituzte.

Lan hau pozik egiten dute, bai baitakite zer esan nahi duen Beñatentzat hanka berria izateak, hau da, zenbat aldatu diezaiokeen bizitza kalitatea. Beraz, oraindik ere askotan ikusiko ditugu ikastolatik barrena, Anje eta Gexan biloben bila nahiz Beñatentzako tapoien bila.


Beno Beñat, aldeztatik aurretik zurekin solasean oso gustura egon garela esanez, animoak eman nahi dizkizugu dituzun ilusioekin aurrera egiteko. Ea hiru urte barru Brasilgo Olinpiadetan irabazitako domina batekin, edota bertan bizitako esperientzia zoragarriarekin itzultzen zaren Haurtzarora.





Mikel Odriozola

Oinak lurrean, ametsak martxan



Maiatzak 7, asteartea, Mikel Odriozolak bisitatu gintuen, martxa atletikoa egiten duen kirolari olinpikoak. Munduko zazpi txapelketetan eta hiru olinpiadetan parte hartu du. Bere ibilbide atletikoa batxilergoan zegoela hasi zuen. Hamabost aldiz Euskadiko txapelduna izan da, eta Espainiako txapelduna ere izan da hainbatetan, baita txapeldun ordea ere.

Mundu guztian zehar ibili da martxa atletikoarekin, jende eta kultura ezberdinak ezagutu ditu, txapelketetan parte hartzeaz gain. Laster munduko txapelketan ikusiko dugu, bere aurtengo erronka gainditzen. Aste-an hamaika saio baliatzen ditu bere entrenamenduetan eta astean bitan estiramendu eta masaje saioak jasotzen ditu.

Duela lau urtetik dieta berezia egiten du, bere errendimendu fisikoa ahalik eta onena izan dadin.

Bere lagunek eta familiakoek diotenez, Mikel oso mutil zehatza da eta zehaztasun osoz eramaten du bere eguneroko bizitza eta bere kirol profesionala ere. Oso zehatza izateaz gain, abila ere bada, eta martxa egiten ari denean korrika dabilela dirudi.

Berarekin egon ginen egunean galdera mordoxka egin genizkion eta eskuzabaltasunez erantzun zituen:



- **Beti kontrolatzen dituzu entrenamenduetan eginiko pausoak?**

Ez, ez naiz hain zehatza, baina egia da nahiko metodikoa naizela.

- **Zein izan zen zure lehenengo entrenatzailea?**

Nire lehen entrenatzailea Legorburu izan zen.

- **Izan al duzu inoiz lesio garrantzitsurik?**

Ez, zorte handia izan dut. Elikadura ongi mantendu dudanez ez dut lesio larriarik izan.

- **Inoiz pentsatu al duzu dopatzea?**

Ez, dopatuta luzaroan arazoak izaten dituzu. Horregatik ez naiz inoiz dopatu, niretzat kirola osasuna da.

- **Oso zaila al da martxatik bakarrik bizitzea?**

Bai, zaila dela egia da, emaitzak behar dituzu eta kirol horretaz bizi nahi baduzu nabarmendu egin behar da, hau da, besteak baino zerbait hobea zarela frogatu.

- **Maila hau lortzeko zure bizitzan asko sakrifikatu duzu? Parrandak, festak etb.?**

Gauza asko galdu ditut, baina irabazi ere bai. Nire ilusioa bete dut eta borrokagatik eta lortutakoarekin nire ametsak lortu ditut. Beraz, alde positibo gehiago ikusten ditut negatiboak baino.

- **Lortu al duzu 5 urte baino gehiagotan Espainiako irabaztea? Hau da gainditu duzun marka ?**

Bai, Espainiako txapelketa 6 alditan irabazi dut, eta aurtén 2. postua lortu dut.

- **Martxak beti laua izan behar al du? Badu maldarik?**

Ez, ez du maldarik izaten .

Bestetik, oso garrantzitsua iruditu zitzaigun Mikelek esandako esaldi bat:

“Kirol ibilbidea hasten duzun momentuan, gauza asko galtzen dituzu, baina luzaroan zure lanak ordainak dituela kontuan hartu behar duzu. Horrek pertsonalki arrakasta sententzia ematen dizu, alde positibo gehiago baititu, alde negatiboak baino” .

Bukatzeko, ikastolari esker onak eman eta ikasleei mezu bat eskaini zigun:

“Kirol munduan, zuek nahi duzuen lortzeko ametsi jarraitu behar diezue”.

Ane Cruz, Izaro Idarreta

Hamahiru urte luze jarrera onean
izan zaretelako gure aldamenean

esan nahi dizuegu azken egunean:
zuen etxera itzuli nahi dizuenean.

Haurtzaro Ikastola, 2013ko ekaina



Aurretik atzera eta ezkerretik eskuinera

LEHENENGO ILARAN:

Aiora Biurrarena, Olatz Sarasti, Ekain Susperregi,
Unai Mixelena, Haizea Prieto, Julien Maya,
Jara Lujanbio, Josune Campano, Aitor Sagastuy,
Intza Loperena, Borja Alustiza eta Xabier Trigo.

BIGARREN ILARAN:

Amets Sarra, Haizea Castaño, Aritz Olarte, Irati OIartzun,
Aitor Alberdi, Maialen Stephens, Nahia Apeztexea,
Zigor Salaberria, Patricia Zaldúa, Mikel Urdanpilleta,
Irati Elizasu, Karen Muñoz eta Olaia Aduriz.

HIRUGARREN ILARAN:

Julen Etxebeeste, Iraitz Mateo, Aitor Eizmendi, Mirari Urdapilleta,
Behat Oiarbide, Maialen Elortza, Jokin Lekuona, Lide Ibaguren,
Gotzon Reteigi, Maider Olaizola, Leire Olaizola, Aitzol Salaberria
eta Ane Lujanbio.

LAUGARREN ILARAN:

Jon Otegi, Julien del Rio, Aitor Ibaguen, Josu Jimeno,
Ane Ibaguren, Jon García, Julien Alkain,
Gorka Ezkurdia, Aitor Torres, Enara Irigorri,
Gorka Aduriz, Maddi Ibaguren eta Joxe Etxeberria. .

Zorionak guztiei! Zortetik handiena opa dizuegu!

txinpart⁵⁶

www.haurtzaroikastola.net



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioa - P4 partzela
Ventas de Irún Auzoa - 20305 IRÚN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goiocom.net



TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



AENOR
ER
Empresa
Registrada
ER-424/2/96



OIARTZUN
Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



☎ 902150404 ☎ 943102055



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN

☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



GEZAK S.C.
KIRLOKORITAKO KIDEAKETAK
GOSTOEN INTEGRAL PEBLUPORTATIBO



ELORSINS KIRLODEIA • Euzkadi, 24
T: 943 492 550 • M: 629 761 892
F: 943 490 591 • gezak@telefonos.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

